

X/X DEKRETUA, X XEKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Hizkuntza-koofizialtasunaren abiapuntua 1978ko Konstituzioaren 3.artikulua da. Bertan xedatzen denez, gaztelaniarekin batera, Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira, bakoitzari dagokion autonomia-erkidegoan, beren estatutu autonomikoen arabera.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuari buruzkoak, 6. artikuluan, xedatu zuen euskara Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala dela, eta bertako biztanle guztiei aitortzen zaiela euskara eta gaztelania hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Horrez gain, autonomia-estatutuak erakunde erkideei aitortu zien bi hizkuntza ofizialen erabilpena bermatzeko ardura, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabakitze gaitasuna. Xedapen honek garrantzi juridikoa ez ezik, antolamenduari dagokionean ere eragin nabarmena izan zuen; izan ere, testuinguru elebakar batetik ele bitan funtzionatu behar duen administrazio publikoak eraldaketa sakonak beharko zituen aurrerantzean.

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioaren oinarritzko habe juridikoa Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legea izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko eta euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babesa eskaintzeko. Bere 5.2 artikulua arabera, Euskal Herriko herritarrei funtsezko hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie gizarte-bizitzako alor guztietan. Horretaz gain, legearen 14.artikuluan xedatzen denez, «herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte». Halaber, Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten.

Administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideak bermatze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoak sistema berezia arautu zuen: hizkuntza eskakizunen sistema, hain zuzen ere. Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak giza baliabideen hizkuntza plangintzarako prozesuaren oinarrizko orientazioa marraztu zuen, 14.2 artikuluan botere publikoek “bi hizkuntzak jakitea zein lanpostutarako derrigorrezkoa den” zehazteko beharra aurreikusi baitzuen.

Ondoren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, hizkuntza eskakizunen sistemaren oinarriak ezarri zituen. 97.5 artikuluan ezarri zen Euskal Administrazio Publikoetan zeuden lanpostuei zegokien hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak horretarako zehaztutako irizpideak izan beharko zituela kontuan organo bakoitzak.

Lege bilakaera honetan ez dugu ahanzi behar 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Lege honek norabide berri bat ezartzen du, udalerriei hizkuntza ofizial bakarra erabiltzeko aukera emanez, betiere komunikazio egintzetan herritarrei hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuz.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko araugintzan egindako lanaren fruitu dira honako hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera eta normalkuntzari buruz azaroaren 25ean onartutako 250/1986 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza arautuz urriaren 17an onartutako 224/1989 Dekretua; lanpostuei izendatutako hizkuntz eskakizunen derrigortasuna zehazteko irizpideak ezarriz urriaren 9an onartutako 264/1990 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua ezartzeko zenbait neurri arautuz abuztuaren 3an onartutako 238/1993 Dekretua (azken horren zati batzuk aldatu zituen gero otsailaren 15eko 89/1994 Dekretuak); Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan hizkuntz normalkuntza-prozesuaren jarraipenerako behin-behineko neurri batzuk arautuz abenduaren 19an onartutako 517/1995 Dekretua. Horiek guztiak 1997ko apirilaren 15ean indargabetu zituen 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak.

Lan horretaz gain, 86/1997 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz, beste araudi espezifikoa sortu da hainbat arlo bereizietarako, hala nola Osakidetza, Ertzaintza, Justizia eta Hezkuntzarako, beren ezaugarriak eta beren eginkizunetan dituzten berezitasunak aintzat hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua indarrean sartu zenetik bi hamarkada baino gehiago igaro dira. Denbora horretan herri-administrazioetan euskararen ezagutza-mailak eta erabilerak nabarmen egin dute gora. Gaur egun, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen ehunekoa nabarmen igo da. 1993an erakundeetako langileen euskara gaitasuna %23ren bueltan bazegoen ere, gaur egun %70etik gora dago; euskara planen orokortzea ere aurrerapen nabarmena da. Gainera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren ondorioz, gero eta pertsona gehiago daude hizkuntza-eskakizuna egiaztatetik salbuetsiak ikasketak euskaraz egin izanagatik.

Nolanahi ere, euskararen erabileran erronka berriak datoz. Bereziki, lan jarduketan euskaraz eta gaztelaniaz lan egingo duen administrazioa lortzea. Ibilbide horri lagundu nahi dio, hain zuzen ere, Dekretu berri honek. Halaber, Dekretu bakar batean batu nahi dira EAeko Sektore Publiko osorako normalizazio arau orokor erkideak; tartean: Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza, Justizia,... eta orain arte normalizazio prozesutik at geratu diren beste subjektu publiko batzuk. Dekretu berriaren helburua da hizkuntza normalizazioa garai berrietara egokitzea, eta Sektore Publiko osoaren koordinazioa ziurtatzea.

Hori dela eta, 86/1997 Dekretua eta arlo berezietarako sortutako beste araudi espezifikoa, zehazki xedapen indargabetzailean aipatzen direnak, indargabetuak izango dira dekretu hau indarrean sartzen denetik.

Hiru atalburu ditu, bost xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Lehenengo atalburuan xedapen orokorrak bildu dira, besteak beste: Dekretuaren xedea, helburuak, herri-administrazioen hizkuntza normalizatzeko prozesuan aplikatu behar diren printzipio gidariak, Dekretuan zehar erabiltzen diren termino batzuen definizioak, dekretua aplikatzeko eremu subjektiboa eta lurralde-eremua. Dekretuak bere aplikazio eremua zabaldu du, Sektore Publiko osoa barneratuz. Batera biltze horrek ahalbidetuko du beharrezko koordinazioa planifikazioan, hizkuntza eskakizunen sisteman, lanpostuen horniketan eta euskararen normalizaziorako oinarritzkoak diren beste irizpide guztietan. Gainera, aukera emango die sozietate publikoei aurrerapauso sendoak emateko euskararen normalizazioari begira; azken batean, erakunde horiek ere zerbitzu publikoa eskaintzen diete EAEko herritarrei. Halere, Dekretuaren eragite eremuaren barne geratu diren erakundeen tipologia anitza dela eta, bere Atalburu eta Atalen aplikazioa ez da era uniformearen gauzatuko, era singularrean baizik, erakundeen autonomia eta antolakuntza moldeei egokitzuz, hain zuzen ere. Bestalde, printzipio gidari nagusi bat ezarri da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten subjektuek euren hizkuntza politika, ekintzak eta jarduna bideratuko dituzte euskara lan eta zerbitzu hizkuntza gisa guztiz normalizatzerara, erakundeen eta administrazioaren funtzionamendua euskaldunduz, alegia.

Bigarren atalburuak, "Hizkuntza Planifikazioa" izenekoak, hiru atal ditu. Lehenengoak planifikazio tresnak, plangintzaldiak eta hizkuntza planifikazioaren partaideak arautzen ditu. Planifikazioaren harira, hainbat kontzeptu argitzeko pausoa ematen du dekretuak; izan ere, askotan, erakundeek nahastu egin dituzte kudeaketako zenbait elementu. Horrela, argi zehazten da zer den plan estrategikoa, eta zeintzuk diren aldeak kudeaketa planekiko. Dekretuan, bestalde, bateratu egiten dira plan estrategikoen indarraldiak. Orain arte hamarreko eta bost urteko planak izan ditugu, aldi ezberdinetan onartutakoak gainera. Hemendik aurrera plan estrategikoak plangintzaldiaren lehen urtean onartuko dira, eta bost urteko iraupena izango dute. Hizkuntza normalizatzeko planen aktore nagusiak zein diren eta zergatik diren horiek argitzen ditu Dekretuak, erakundeetako ordezkari normalizazioaren ardura nagusia egotziz. Euskararen normalizazioa politika estrategikoa eta zeharkakoa da; beraz, erakundeetako ordezkari dagokie horren garapena egingo dela ziurtatzea, jarraipena egitea eta, ahal dela, eredu izatea euskararen erabileran, erakundearen harreman sarean duten zentraltasuna kontuan hartuta. Bigarren atalak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen ditu, hau da, dekretu honen aplikazio eremuan dauden entitateek eta horien zerbitzura dauden langileek bete behar dituzten oinarritzko jarraibideak. Irizpide horiek Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan ezarritako irizpideetan oinarritu dira. Hirugarren atalak euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoak eta kudeaketa planak arautzen ditu.

Hirugarren atalburuak, testuko luzeenak, hizkuntza eskakizunen sistema arautzen du.

Lehenengo atalean hizkuntza eskakizunen definizioa zehazten da, eta dekretu honen berritasun handienetako bat ere aurkezten da: tarteko hizkuntza eskakizunak. Orain arte, hizkuntza-eskakizun guztiak simetrikoak izan dira, hau da, maila bera eskatzen zuten hizkuntza eskakizuna osatzen zuten gaitasun guztietan. 86/1997 Dekretua indarrean egon den urte hauetan ikusi da lanpostu baten funtzioak betetzeko beharrezkoak diren ahozko eta idatzizko mailak berdinak ez diren lanpostuak egon daitezkeela, eta, hain zuzen ere, kasu horientzat sortu da tarteko hizkuntza-eskakizunak ezartzeko aukera, lanpostuaren funtzio eta komunikazio harremanen azterketatik hala komeni dela ondorioztatzen bada. Edozelan ere, herritarrekin ahozko harremana duten lanpostuetan ahozko adierazpenean esleitu beharreko gutxieneko maila 2HE edo B2 maila izango da; izan ere, adituen ustez, maila hori oinarri-oinarrizkoa da herritarren hizkuntza eskubideak behar den bezala bermatzeko.

Bigarren atala hizkuntza eskakizunetako euskara maila egiaztatzeko probei buruzkoa da. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko titulu eta ziurtagiriak zehazten ditu. Orain arte bezala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) Euskal administrazio publikoetako langileen hizkuntza eskakizunak egiaztatuko ditu, eta Euskal Sektore Publikoko gainerako langileek Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) bitartez egiaztatu ahal izango dute. Dena den, baliokidetutako euskara titulu eta ziurtagiriek orain arte zuten balio bera izango dute.

Hirugarren atalak, hizkuntza eskakizunak egiaztatetik salbuesitako bideari buruzkoak, Dekretuaren beste berritasun handietako bat dakar: hautaketa prozesuko proba guztiak egin eta hautaketa prozesua gainditzeagatik hizkuntza eskakizuna azterketa bidez egiaztatzeko salbuespena. Horretarako egiten diren probek lanposturako beharrezkoa den idatzizko eta ahozko gaitasuna neurtzeko eta ebaluatzeko aukera eman beharko dute eta aukera anitzeko probak ez dira baliozkoak izango. Azken salbuespen mota honen eragina mugatua da. Baliatzen den hautaketa prozesurako bakarrik balioko du eta, hautagaia hautatua izanez gero, baita erakunde beraren barne mugimenduetarako ere, betiere azterketarik gabeko barne-horniketetan. Ikasketak euskaraz egiteagatik hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko salbuespenaren osagarri gisa aurkezten da salbuespen berri hori.

Laugarren atalak derrigortasun-datak arautzen ditu, haien ezarpena eta derrigortasun-indizea. Atal honetako xedapenak 86/1997 Dekretuan ezarritakoetan oinarritzen dira, eta tarteko hizkuntza eskakizunak sortzearen ondorioz beharrezkoak diren egokitzapenak egin dira.

Bostgarren atalak hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun-daten txostenak eta lanpostuei buruzko txostenak arautzen ditu. Dekretuaren aplikazio eremua administrazio publikotik sektore publikora zabaltzen denez geroztik, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoaren txostenen ekoizpena nabarmen handituko dela aurreikusten da.

Seigarren atalak lanpostuen horniketaren prozesua arautzen du. Atal honetako xedapenak ere 86/1997 Dekretuan ezarritakoetan oinarritzen dira, eta tarteko hizkuntza eskakizunak sortzearen ondorioz beharrezkoak diren egokitzapenak egin dira.

Zazpigarren atalak, adinean edo euskara ikasteko beste ezintasunetan oinarritutako salbuespenak ezartzen ditu. Salbuespen horiek 86/1997 Dekretutik ekarri eta mantendu dira.

Dekretuak, azkenik, bost xedapen gehigarri ditu. Nabarmenezkoa da lehenengo xedapen gehigarria, zeinaren bidez Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) eratzen den, hizkuntza normalizazio gaietan eskumenak dituzten herri aginteen arteko elkarlana areagotzeko asmoz.

Gainera, bost xedapen iragankor biltzen dira: lanpostu zerrendetako egokitzapenei buruzkoa; egokitzapenei buruzkoa; Teknikari Gaituaren hizkuntza eskakizunei buruzkoa; azterketa ereduak egokitzeari buruzkoa; eta azkenik, adinagatik zein gaitasun ezagatik aitortutako salbuespenei buruzkoa. Xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ere jasotzen dira.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dela eta, hizkuntzaren erabilera ez-sexista zeharkako ardatz gisa hartu behar da herri-administrazioen politika publikoetan, eta ardatz horrek gidatu eta antolatu behar du herri-administrazioek arlo horretan duten erregulazio guztia, bai eta barne-erabileran eta jarduerak herritarrei zuzenduta daudenean ere.

Dekretu hau emateko oinarriak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Euskadiren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.2 artikuluan ezarritako eskumenak dira.

Horrenbestez, nahitaezko txostenak igorrita, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoari jarraikiz, Lehenengo lehendakariordearen eta Segurtasuneko sailburuaren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren, Hezkuntzako sailburuaren, Osasuneko sailburuaren, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren proposamenez, eta 20XXko XXaren XXan egindako bileran Gobernu Kontseiluak gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

1.- Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza izanik, eta, gaztelania bezala, Euskal Sektore Publikoko hizkuntza ofiziala, Dekretu honen xedea da Euskal Sektore Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzea.

2.- Dekretu honek Euskal Sektore Publikoko erakundeen hizkuntza planifikazioa eta lanpostuetako hizkuntza eskakizunen sistema arautzea du helburu.

2. artikulua.- Helburuak.

Dekretu honek helburu hauek lortu nahi ditu:

a) Pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatzea Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeekin dituzten harremanetan, eta benetan gauzatzea arreta bi hizkuntza ofizialetan une oro erabiltzeko eta jasotzeko duten eskubidea.

b) Euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza gisa kokatzea Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen jardunean, erakunde horiek ezarritako erabilera-irizpideen arabera.

Nolanahi ere, helburu horrek edo Dekretu honetan euskararen erabilera normalizatuari edo orokorrari buruz egiten diren aipamenek ez dute inola ere mugatzen lurrate-eremu bakoitzean egon daitezkeen gainerako hizkuntza ofizialen erabilera.

c) Herritarren eta Euskal Sektore publikoa osatzen duten erakundeen euskararen erabilera sustatzea eta erraztea.

3. artikulua.- Printzipio gidariak.

2. artikuluan ezarritako helburuak betetzeko, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek printzipio hauen arabera gidatuko dute beren jarduna:

a) Euskararen presentziaren eta kalitatearen etengabeko aurrerapena Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen jarduera guztietan, gure lurralde-eremuan kalitatezko zerbitzu publikoaren ezinbesteko ezaugarri gisa.

b) Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen hizkuntza-politika herritarren hizkuntza-eskubideen eraginkortasun osora bideratzea, erakunde horiekiko harremanetan.

c) Ekintza positiboa, euskara euskal herriaren berezko hizkuntza den aldetik, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen jarduera guztietan, euskararen erabilera mugatzen duten edo hizkuntza horren kalterako diren oztopoak ezabatzeko neurriak hartuz.

d) Euskal Sektore Publikoa osatzen duten entitateen euskarazko hizkuntza-gaitasuna etengabe hobetzea, beren jarduerak euskaraz garatzeko, betiere, zuzentzen zaizkien herritarrei hizkera zuzena, zehatza, argia eta egokia emanez.

e) Erabiltzen duten edo erabili nahi duten hizkuntza ofiziala dela-eta pertsonak ez baztertzea.

f) Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen hizkuntza-politikaren

eraginkortasuna eta efizientzia, jarduerak behar bezala planifikatu eta ebaluatzean oinarrituta.

g) Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek beren burua antolatzea, beren hizkuntza-normalizazioko prozesua diseinatu eta gauzatzeko, hizkuntza-politikari eta zerbitzu publikoari buruzko lege- eta erregelamendu-xedapenen esparruan.

4. artikulua. - Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, hona hemen zenbait terminoren esanahia:

- “Zerbitzu-hizkuntza”: herritarrei zuzenean edota hirugarren baten bitartez edozein informazio edo zerbitzu emateko erabiltzen den hizkuntza, izan aurrez aurre, izan telefonoz edo bide elektronikoz, idatzita zein ahozkoa.

- “Lan-hizkuntza”: erakunde barneko zein erakundeen arteko jarduketetan, ahoz zein idatziz, erabiltzen den hizkuntza.

- “Arnasguneak”: eremu geografikoa eta soziofuntzionala zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa 80%tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.

- “Langile”: Dekretu honen ezarpen eremuko erakundeen zerbitzura diharduen edozein lagun.

- “Lanpostua”: lanpostu zerrendan denominazio berarekin identifikatzen diren dotazioen multzoa.

- “Dotazioa”: administrazioaren zerbitzura dauden pertsonen okupatzen dituzten postuak edo plazak.

Dekretu honetan, kasu gutxi batzuetan dotazio eta lanpostu kontzeptuak berariaz bereizita erabiltzen dira. Gainerako kasuetan, “lanpostu” hitza erabiltzen da dotazio kontzeptuaren pareko; ondorioz, lanpostuak dotazio bat baino gehiago badu, Dekretuak lanpostu hitza erabiltzerakoan horietako bakoitzari buruz ari dela ulertu behar da.

- “Horniketa”: lanpostu edo dotazioetarako edozein sarbide mota, barnekoa edo kanpokoak; hala nola lan-eskaintza publikoa, leku-aldatze lehiaketa, zerbitzu eginkizuna, behin-behineko atxikipena eta lan-poltsen bitartekoa.

- “Hizkuntza eskakizuna”: lanpostu bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun maila.

- “Derrigortasun data”: Dotazioari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea ezinbesteko baldintza bihurtzen duen data.

5. artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.

1.- Dekretu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie Euskal Sektore Publikoa osatzen duten zuzenbide publiko zein pribatuko erakunde guztiei, beren izaera edozein delarik ere, artikulua honetan ezarritako baldintzetan.

Dekretuan “erakunde” hitza erabiltzen da edozein antolakunde mota izendatzeko, berdin izanik administrazioa, erakunde autonomoa, partzuergoa, fundazioa, enpresa, elkartea edo beste edozein motatakoa izan.

2.- Dekretu honen aplikaziorako Euskal Sektore Publikotzat jotzen da euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoen multzoa, Euskal Sektore Publikoaren, maiatzaren 12ko, 3/2022 Legearen 4. artikuluan jasotzen den eran.

3.- Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeei Dekretua bere osotasunean aplikatuko zaie, salbuespen hauekin:

a) Justizia administrazioaren zerbitzura dagoen Administrazioari Lehen eta Bigarren Xedapen Iragankorretan ezarritako neurri eta baldintzetan aplikatuko zaio.

b) Eusko Legebiltzarrari eta Arartekoaren bulegoari, Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako neurri eta baldintzetan aplikatuko zaie.

c) Dekretua bere osotasunean aplikatuko zaio Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduen langilegoari; bere irakaslegoari eta ikertzailegoari, ordea, ez zaie aplikatuko.

d) Dekretua bere osotasunean aplikatuko zaio Hezkuntza Sailaren ardurapeko ikastetxeetako administrazioan eta zerbitzuetan diharduen langilegoari; bere ardurapeko ikastetxeetako planifikazioari eta irakaslegoei eta gainerako langileei dagokienez, ordea, hauek izango zaizkie aplikagarri:

- I. Atalburua.

- II. Atalburuaren Lehenengo Atala.

- III. Atalburuaren Lehenengo Ataleko 26tik 30ra arteko artikulua, Bigarren Atala eta Seigarren Ataleko 46 artikulua.

4.- Eusko Jaurlaritzak, horretarako aginpidea duten erakundeekin ados jarrita, lan egingo du eta jarduerak bultzatu eta sustatuko ditu Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio eta bere menpeko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko neurriak har ditzan, Dekretu honetako Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz, eta Euskararen erabilera normalizatzeko, azaroaren 24ko, 10/1982 Oinarrizko Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat.

6. artikulua.– Aplikazio lurralde-eremua.

- 1.- Arau hau Euskal Sektore Publikoari aplikatuko zaio, aurreko artikuluan ezarritako baldintzetan.
- 2.- Arau hau aplikagarria izango da, halaber, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izan ditzaketen egoitza zein bulegoetan, kokapen lurraldeko hizkuntza ofizialak erabiltzeari kalterik egin gabe.
- 3.- Kulturaren eta hizkuntzaren arloan balio eta jarduera partekatuak finkatze eta indartze aldera, Dekretu hau aplikatuko zaie, halaber, bere eraginpeko erakundeei, euskara berezko hizkuntza duten beste lurraldeetako erakundeekiko harremanetan; esparru honetan, erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenak sustatuko dira.

II. ATALBURUA

HIZKUNTZA PLANIFIKAZIOA

LEHENENGO ATALA

PLANIFIKAZIOAREN TRESNA ETA PARTAIDEAK

7. artikulua.– Planifikazio tresnak eta plangintzaldiak.

- 1.- Euskararen normalizazioa helburu estrategikoa da eta Dekretu honen ezarpen eremuko erakundeek beren jardun guztien zeharlerro bezala kudeatuko dute.
- 2.- Erakunde bakoitzak bere gobernu plana egiten duenean, plan horri lotutako helburuak eta ekintzak diseinatzen dituenean, eta baita horiek gauzatzeko diru partidak ezartzerakoan ere, ekintza horiek euskararen normalizazioan izan dezaketen eraginaren gaineko hausnarketa egingo du eta euskararen sustapenerako behar diren neurriak hartuko ditu.
- 3.- Honako hauek dira hizkuntza planifikaziorako tresna nagusiak:
 - a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
 - b) Plan estrategikoak.
 - c) Kudeaketa planak.
- 4.- Normalizazio prozesua plangintzalditan antolatuko da. Plangintzaldiek, oro har, bost urteko iraupena izango dute; hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren

organoak erabakiko ditu, kasuan kasu, beren iraupen zehatza zein amaiera dataren balizko atzerapenak.

5.- Euskal Sektore Publikoaren partaideek euskararen erabilera arautu eta sustatuko dute; horretarako, euskararen normalizazioa planifikatuko dute beren eskumen-eremuko administrazio-organo, zerbitzu eta jardueretan.

Hizkuntza-plangintzaren helburu nagusia jarduketa guztiak euskaraz egin ahal izatea izango da. Horretarako, neurriak hartuko dira Dekretu honen ezarpen eremuko erakundeek euskaraz funtziona dezaten; bereziki, euskararen arnaguneetan.

Euskal Sektore Publikoaren partaideek neurriak hartuko dituzte beren zerbitzura lan egiten dutenek euskara ikasi, hobetu eta optimiza dezaten.

6.- Euskal Sektore Publikoaren partaideek euskararen ezagutza sustatu eta haren erabilera dinamizatuko dute, haien eskumenen barruan egiten diren jardueretan; herritarrei zuzendutako zerbitzuetan ez ezik, baita sustapen-ekintzetan ere. Horretarako, jardueren xedeak eta ezaugarriak kontuan hartuta, jarduera horietan euskara erabiltzea bultzatuko dute eta, ahal duten heinean, jarduera horiek finantzatzen lagunduko dute.

8. artikulua.– *Hizkuntza planifikazioaren partaideak.*

1.- Erakundeetako zuzendaritza zein gainerako goi organoetako titularrek dute hizkuntza normalizazioaren ardura nagusia; organo horietako kideek parte hartuko dute hizkuntza planifikazioaren diseinuan, inplementazioan eta jarraipenean.

2.- Euskararen planifikazioak erakundearen zerbitzura diharduten langile guztiei eragingo die, herritarrei euskarazko zerbitzua bermatzeko eta, kasuan kasu, euskaraz lan egiten dela sustatzeko. Helburu horietarako, erakundeak behar beste protokolo eta jarraibide ezarriko ditu.

3.- Lanpostu bakoitzaren harreman sarearen arabera eragingo die hizkuntza normalizazioaren planifikazioak lanpostu horietan diharduten langileei, zerbitzu-hizkuntzaren eta lan-hizkuntzaren ardatzak aintzat hartuz.

4.- Erakundeek bermatuko dute herritarrekin harremana duten lanpostuetan aritzen diren langileek, lanpostuak derrigortasun-datarik ezarrita ez duen kasuetan ere, betiere protokolo baten arabera jokatu dutela herritarren hizkuntza eskubideak uneoro bermatzeko. Horretarako, langile horientzat herritarrari harrera euskaraz ematera zuzendutako oinarrizko prestakuntza eta beharrezko hizkuntza-irizpideak zein protokoloak ezarriko dituzte.

Langile guztiei dagokie, herritarrekin harreman ez ohikoa edo noizbehinkakoa duten lanpostuetakoak barne, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. Xede horretarako, erakundearen zerbitzura dauden guztiek gutxieneko ezagutza izan behar dute herritarrari

harrera egiteko eta, behar izanez gero, komunikazioa euskaraz dakien langile batengana bideratzeko, erakundeak horretarako aurreikusitako protokoloen arabera.

BIGARREN ATALA

HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

9. artikulua.– Hizkuntza irizpideak.

- 1.- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak hizkuntza arloko oinarrizko jarraibideak dira bai erakundeentzat, bai haien zerbitzura dihardutenentzat ere.
- 2.- Ondorengo 3. azpiatalean ezarritakoa eragotzi gabe, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideek izaera iraunkorra dute; plangintzaldien zein plan estrategikoen iraupenek ez dute beren indarraldia baldintzatzen.
- 3.- Erakunde bakoitzak bere hizkuntza irizpideak berrikusi eta, hala badagokio, eguneratuko ditu plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean; halaber, plangintzaldian zehar ere aldaketak eta egokitzapenak egin ahalko ditu.

10. artikulua.– Herritarren eskubideak eta erakundeen hizkuntza irizpideak.

- 1.- Euskara da Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala izanik, euskaraz zein gaztelaniaz egindako egintza juridikoak eta administrazio-jarduerak erabat baliozkoak dira. Erakunde bakoitzak bere hizkuntza plangintzan ezarriko ditu bere hizkuntza irizpideak, legedian ezarritakoari, bere erabilera planari eta egoera soziolinguistikoaren bilakaerari jarraikiz; nolana ere, herritarrek hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatuko da haiekiko harreman guztietan.
- 2.- Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztiek bermatuko diete herritarrei euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea Sektore Publikoarekin, zuzenean zein zeharka dituzten harremanetan. Sektore Publikoaren zerbitzura diharduten langileak dira betebeharrak horren bermatzaileak, herritarrekiko komunikazioetan herritarrek hautatzen duten hizkuntzan jardun behar baitute.
- 3.- Sektore Publikoko langileak beren erakundearen hizkuntza irizpideek agintzen dieten hizkuntzan arituko dira erakundearen barne jarduketan zein beste erakundeekiko komunikazioetan, ahoz zein idatziz.
- 4.- Herritarrek erakundeen mezuak ulertzeko eskubidea dute, baita ahalegin berezirik egin gabe ulertzeko ere; beraz, Sektore Publikoko erakundeek kalitatezko komunikazioa baliatuko dute, euskarri eskuragarrietan komunikazio zuzenak, egokiak eta ulergarriak

zabalduz. Horretarako, publizitate kanpainak kontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa. Kontratazioarako baldintza pleguetan baldintza hori berariaz jasoko da.

5.- Euskal Sektore Publikoko erakundeek erabiltzen duten hizkerak ezingo du inolako diskriminaziorik eragin, genero, arraza edo bestelako arrazoiak direla-eta.

6.- Komunikazioetan, Euskal Sektore Publikoko erakundeek hartzaileen adina nahiz bestelako inguruabarrak kontuan hartuko dituzte, administrazioko hizkera hartzailearen ezaugarrietara ahalik eta gehien egokitzeko.

7.- Erakundeek kontratazioetan hizkuntza baldintzak ezarriko dizkiete beren zerbitzura jarduten duten kontratistei zein azpikontratistei, egikaritze baldintzetan proportzionalitatea bermatuz; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion erakundeak berak herritarrekiko harremanetan bete behar lituzkeen hizkuntza baldintza berberak bermatzen daitez.

Hizkuntza baldintzak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko jarraipena eta ikuskaritzalana egingo da. Irizpideen urraketei aurre egiteko beharrezko egokitze-neurriak ezarriko dira.

8.- Sektore Publikoko erakundeek euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko dituzte dagokion organoaren deialdi, akordio eta hitzarmenetan, dirulaguntza zuzenen kasuan, bai eta erakundearen beraren agindu eta hitzarmenetan ere, dirulaguntza izendunen kasuan, batez ere, onuradunek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, eta betiere honako printzipio hauek betez:

- a) Proportzionaltasun-printzipioari jarraituko diote, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Diruz lagundutako jardueretarako izango dira.
- c) Onuradunak hizkuntza-irizpideak bermatu ahal izango ditu, bai bere bitartekoak erabiliz, bai besteren baliabideak erabiliz.

11. artikulua.– Hizkuntza irizpideen helburuak.

Hizkuntza irizpideek hiru helburu nagusi dituzte:

- a) Herritarren arteko benetako berdintasuna lortze aldera, horien hizkuntza eskubideak bermatzea Sektore Publikoko erakundeekin harremanetan jartzen direnean; erakundeek xede hori eragozten duten oztopoak gainditzeko behar diren ekintzak bultzatuko dituzte.
- b) Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea Sektore Publikoko erakundeetan, euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza ohikoa izan dadin.

- c) Sektore Publikoa eredu izatea eta jarraibidea eskaintzea euskararen normalizazio prozesuan.

12. artikulua.– Hizkuntza irizpideen printzipio gidariak.

Hizkuntza irizpideak ezartzerakoan erakunde bakoitzak berari dagokion legedian ezarritakoari jarraituko dio eta, kudeaketari dagokionez, honako printzipio hauek kontuan hartuko ditu:

- a) Irizpideok erakundeari, bere osotasunean, eragiten diotela.
- b) Hizkuntza kudeaketa integratuta dagoela kudeaketa-sistema orokorrean.
- c) Eskuhartzea bermatuko dela, pertsonen eta eragileen proaktibotasuna sustatze aldera.
- d) Hizkuntza politika uztartuta dagoela zerbitzuek eta atalek dituzten bestelako plangintza eta ikuspegiekin, hala nola politika publikoen gainerako zeharlerroekin; besteak beste, genero berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua, jasangarritasuna, eta abar.
- e) Aurrerapen-mailaren jarraipena eta ebaluazioa modu sistematikoan egiten dela.
- f) Erakunde bakoitzak hizkuntza irizpideen kudeaketa gauzatzeko jarraipen- eta antolakuntza-sistema ezarriko duela, eta sistema horietan zuzendariak eta hizkuntza normalizaziorako teknikariak, halakorik badago, esku hartuko dutela.
- g) Erakundearen zerbitzura dauden langile guztiak partaide aktiboak direla euskararen normalizazioan.

Horrez gain, erabilerari dagokionez, printzipio orokor hauek hartuko ditu kontuan:

- a) Sektore Publikoko erakundeen irudi korporatiboaren elementuak euskaraz, gutxienez, idatziko dira, euskarria edozein dela ere. Bulegoetako eta beste instalazioetako barneko eta kanpoko errotulu adierazleak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, euskarria edozein dela ere. Honako kasu hauetan euskara hutsez jarri ahal izango da errotulua:

- Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- Mezuarekin batera, piktograma bat ere dagoenean, esanahia argitzeko.

Irudi instituzionalean hizkuntza ofizial biak erabiltzen direnean, euskarak lehentasunezko tokia izango du.

Publizitatea, informazioak, argitalpenak, kartelak, oharrak eta horrelakoak, dauden euskarrietan daudela, bi hizkuntza ofizialetan zabalduko dira; hala ere, informazioa euskararen sustapenarekin lotuta dagoenean, euskara hutsez zabaldu ahal izango da.

b) Sektore Publikoko erakundeek herritarrekin dituzten harremanetan hauek hautatzen duten hizkuntza ofizialaren erabilera bermatuko da.

Herritarrekin zuzeneko harremana daukaten lanpostu edo unitateetan, Sektore Publikoko erakundeek herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean emango diote zerbitzua ahoz.

Hartzaile zehatzik gabeko mezuak zabaltzen direnean gailu automatikoen bidez, edo telefonozko informazio-zerbitzuen, bozgorailuen edo antzeko bitartekoen bidez, lehenik euskaraz emango dira.

Sektore Publikoko erakundeek idatzizko testuak erantzun behar dituztenean, herritarrak erabilitako hizkuntza ofizialean erantzungo dute, baita bide telematikoz edo elektronikoz erantzuten dutenean ere. Hartzaile zehatzik ez duten dokumentuak hizkuntza ofizial bietan idatzizko dira.

c) Bai euskara, bai gaztelania, biak dira Sektore Publikoko erakundeetako lan-hizkuntza ofizialak; hortaz, barne-jarduketetan bata zein bestea erabili, biak dira erabat baliodunak zuzenbidearen ikuspegitik. Erakundeek euskararen erabilera arautu eta planifikatuko dute barne-jarduketetan, lan-hizkuntza gisa normaltasunez eta modu orokorrean erabilia izan dadin eta barne-komunikazioak orokorrean eta normaltasunez euskaraz izan daitezen, herritarren hizkuntza-eskubideak une oro bermatuta.

Hizkuntza normalizatzeko planetan zehaztu ahal izango da zein zerbitzu izendatuko diren «euskarazko administrazio-atal», zeinetan lan-hizkuntza euskara izango baita. Zerbitzu horietan, euskara izango da ahozko zein idatzizko harremanetarako hizkuntza.

Sektore Publikoko erakundeek dagozkien irizpideak ezarriko dituzte itzulpenak modu zentzudunean erabiltzeko.

d) Sektore Publikoko erakundeen bulegoko materialak, hardwareak eta softwareak egokituta egon beharko dute euskaraz ere funtziona dezaten; eta beren-bereri erabiltzeko sortzen den softwareak euskaraz erabiltzeko modukoa izan beharko du, hargatik eragotzi gabe gaztelaniaz ere erabili ahal izatea. Era berean, erakundeek informatika-aplikazioak egokitu beharko dituzte, herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten.

Erakundeen erantzukizunpeko dokumentuak, herritarrei modu orokorrean zuzenduta sortuak izan direnean, eta intranetetik edo internetetik kontsultatzeko

moduan jartzen direnean, euskaraz eta gaztelaniaz eskaini beharko dira. Gainerako kasuetan, jatorriz idatzi diren hizkuntzan eskainiko dira dokumentuak.

Erakundeen web-edukietara sartzeko hasierako orriak euskaraz egon beharko du, lehenespenez. Orri horretan edukiak gaztelaniaz ikusteko esteka ere agertuko da, eta, hala badagokio, ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetan ikusteko estekak ere bai.

Izapideak internet edo intranet bidez egiteko aukera eskaintzen denean, euskara eta gaztelania baliaitzeko aukera eman behar da.

13. artikulua.– Hizkuntza irizpide ereduak.

Beharrezko koordinazioa bermatzeko, plangintzaldi bakoitzaren hasieran hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen eredua landu, eta erakundeen eskura jarriko du tresna telematikoen bidez, nahi izanez gero, eredu hori erabil dezaten beren hizkuntza irizpideak garatzerakoan.

14. artikulua.– Hizkuntza irizpideei buruzko txostena.

1.- Erakunde bakoitzak, bere hizkuntza irizpideak onartu aurretik, eta horrela nahi badu, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari txosten bat eskatu ahal izango dio, eskuragarri izango dituen tresna telematikoen bitartez.

2.- Txosten hori egiteko, gehienez ere, bi hilabeteko epea egongo da, eta bertan azalduko dira proposamenaren ahulezia eta indargune esanguratsuenak; nolahi ere, txostena ez da inola ere loteslea izango.

15. artikulua.– Hizkuntza irizpideen onarpena eta jarraipena.

1.- Erakunde bakoitzak hizkuntza irizpideak onartzeko ditu bere barne antolakuntzako arauak diotenari jarraituz. Erakundearen barne erregimena eta funtzionamendua arautzen dituzten arauetan ezarrita ez balego zein den hizkuntza irizpideak onartzeko organo eskuduna, orduan erakundearen organo kolegiatu gorenari egokituko litzaioke behin betiko onarpena.

2.- Sektore Publikoko erakunde bakoitzak bere hizkuntza irizpideen, zein horien balizko aldaketen, onarpenaren berri eman beharko dio hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari, aurreko artikuluetan aipatutako tresna telematikoen bitartez.

3.- Erakunde bakoitzak bere Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen jarraipen sistematikoa egin eta horien betetze maila aztertuko du, bere planifikazioan horretarako ezarriko dituen bitartekoen bidez.

HIRUGARREN ATALA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA:

PLAN ESTRATEGIKOA ETA KUDEAKETA PLANAK

16. artikulua.– Erabilera plana.

Euskararen erabilera normalizatzeko erakundearen barne plangintzako bi tresna batzen ditu erabilera plana kontzeptuak; honako bi tresna hauek: plangintzaldi osorako plan estrategikoa eta plangintzaldian zehar egin beharreko kudeaketa planak.

17. artikulua.- Plan estrategikoa.

1.- Plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, erakunde bakoitzak bere plan estrategikoa diseinatu eta onartuko du. Plan estrategiko horrek erakundearen hasierako egoera jaso behar du normalizazioaren esparru desberdinetan, eta horretarako ezinbestekoa izango da adierazle egokiak baliatzea. Abiapuntua hori izanda, erakundeak finkatu behar du adierazle horietako bakoitzean zer-nolako emaitzak lortu nahi dituen plangintzaldiaren amaieran eta helburu horiek lortzera bideratuko dituen neurri eta baliabideak.

2.- Erakunde berean plan estrategiko bat baino gehiago egon daitezke, funtzio-arlo bakoitzaren berezitasunei erreparatuta.

3.- Legedian aurreikusitako moduan, erakundeak kontsulta egin beharko die sindikatuei eta langileen gainerako ordezkariari, euskararen erabilera normalizatzeko egin behar den plan estrategikoa diseinatzerakoan.

18. artikulua.– Plan estrategikoaren ereduak.

Beharrezko koordinazioa bermatzeko, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoaren ereduak landuko ditu eta, tresna telematikoen bitartez, erakunde guztien eskura jarriko ditu plangintzaldi bakoitzaren hasieran, erakundeek, nahi izanez gero, erabili ahal izateko. Plan ereduetan proposatzen diren adierazleak abiapuntu hartuta, erakunde bakoitzak bere planak garatu ahal izango ditu.

19. artikulua.– Plan estrategikoaren adierazleak

1.- Erakundeak hasierako diagnosia egin behar du, normalizazioaren esparru ezberdinetan abiapuntuko egoera zein den ezagutzeko. Diagnosi horri esker jakingo du zertan diren neurtutako adierazle guztiak, eta egin ahal izango du plangintzaldirako aurreikuspen xehea.

2.- Erakundeak, bere plan estrategikoa egiteko erabiltzen duen eredua edozein dela ere, plangintzaldiaren hasierako diagnosian erabili behar ditu, gutxienez, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak Sektore Publikoko erakundeetan euskararen normalizaziorako ezinbestekotzat jotzen dituen adierazleak.

3.- Erakundeak bere plan estrategikoa egiteko, ezinbesteko adierazle horietaz gain, Eusko Jaurlaritzaren eruedetan dauden gainerako adierazleak zein erakundeak berak egokitzen hartzen dituenak ere erabili ahal izango ditu.

20. artikulua.– Plan estrategikoari buruzko txostena.

1.- Erakunde bakoitzak, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak emandako eruedetan oinarrituta, edota aproposa deritzon beste ereduren bat erabilia, bere plana garatu ondoren, horretarako eskainitako tresna telematikora igoko du, bertan ezarritako jarraibideak betez.

2.- Erakundeak, bere plan estrategikoa onartu aurretik, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari plan proposamenaren inguruko txostena eskatu beharko dio tresna telematikoaren bidez.

3.- Txosten horretan Eusko Jaurlaritzako organoak planaren azterketa teknikoa egin eta horren araberako iritzia emango du, planaren indarguneak eta zer hobetuak nabarmenduz. Txostena egiteko, gehienez ere, bi hilabete izango ditu Jaurlaritzak, eta txostena ez da inola ere loteslea izango.

4.- Eskaera egin bada Atal honetan ezarritako baldintzak beteta, eta bi hilabeteko epea igarota erakundeak txostena jaso izan ez balu, plan estragikoa onartzeko izapideekin jarraitu ahalko luke.

5.- Erakundeak txostena eskatu ahal izateko ezinbestekoa da artikulua honetan eta 28.3 artikuluan aipatzen diren tresna telematikoetan datu guztiak eguneratuta edukitzea.

21. artikulua.– Plan estrategikoaren onarpena eta indarraldia.

1.- Erakunde bakoitzak plangintzaldiaren lehen urtean onartuko du bere plan estrategikoa. Halaber, aurreko artikuluan aipatutako tresna telematikoaren bitartez, onarpenaren berri emango dio hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari.

2.- Plan estrategikoa plangintzaldiak dirauen epealdi osorako izango da; hala ere, bere indarraldia ez da etengo, plangintzaldiaren amaierara heldu arren, plan berri batek zaharra ordezkatu arte.

3.- Erakunde bakoitzak plan estrategikoa onartuko du bere barne antolakuntzako arauak diotenari jarraikiz. Erakundearen barne erregimena eta funtzionamendua arautzen dituzten arauetan ezarrita ez balego zein den plan estrategikoa onartzeko organo eskuduna, orduan erakundearen organo kolegiatu gorenari egokituko litzaioke behin betiko onarpena.

22. artikulua.– Plan estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa.

1.- Erakunde bakoitzak bere plan estrategikoan erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du, bere planifikazioan horretarako ezarriko dituen bitartekoen bidez.

2.- Plangintzaldi bakoitzaren azken urtean behintzat, erakundeek barne ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute. Plangintzaldiaren amaierako ebaluazio horren datuak oinarri izango dira ondorengo plangintzaldi berriko plan estrategikoa diseinatzeko.

3.- Erakundeek, jarraipen eta ebaluazioak egiteko, hizkuntza politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak Sektore Publikoaren eskura jarritako metodologia estatistikoa erabili ahal izango dute.

4.- Barne ebaluazioak egiteaz gain, erakundeek plangintzaldian zehar kanpo ebaluazioa ere egitea sustatuko da, Bikain ziurtagiria lortzeari begira.

23. artikulua.– Ezinbesteko adierazleen ebaluazioa.

1.- Erakunde bakoitzak bere plan estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du, bere planifikazioan ezarri bezala; horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak Sektore Publikoko erakundeentzat finkatutako ezinbesteko adierazleen aldizkako ebaluazioa ere egin beharko du. Dagokion tresna telematikoen jarraibideetan zehaztuko da zein maiztasunarekin egin beharko den ezinbesteko adierazle bakoitzaren ebaluazioa.

2.- Aldizkako ebaluazio horien emaitzak tresna telematikoetara igoko ditu erakunde bakoitzak, Eusko Jaurlaritzaren koordinazio egitekoak ahalbidetzeko. Halaber, informazio hori erakundeko sindikatuen eta langileen gainerako ordezkarien eskura jarriko du.

3.- Ezinbesteko adierazleen ebaluazioaz gain, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak gaiei edo arlo zehatzei buruzko aldizkako ebaluazioak ere egin ahalko ditu, euskararen normalizazioan esleituta dituen koordinazio funtzioak gauzatzeko.

4.- Sektore Publikoko erakundeek ebaluazio horiek egiteko behar diren erraztasun guztiak emango dizkiote hizkuntza politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari.

24. artikulua.– Kudeaketa planak.

1.- Plangintzaldian zehar, gutxienez bi aldiz, kudeaketa plana edo planak onartuko ditu erakunde bakoitzak, plan estrategikoa garatzeko. Kudeaketa plana ekintza plana da, plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko bitartekoa izango dena.

2.- Erakunde osorako bakarra edo atalkako kudeaketa planak egingo dira; tamainak, erakundearen antolakuntza moldeak, jarduera sektorearen berezitasunak edo egoerak hala eskatzen badute.

3.- Kudeaketa planen egiturak bat etorri behar du plan estrategikoaren egiturarekin. Bertan ezarriko dira plan estrategikoan jasotako helburuak gauzatzeko zehaztutako operako ekintza zehatzak, eta baita ekintza horien jarraipenaren arduradunak, epeak eta muga-datak ere.

4.- Kudeaketa planak ahalik eta partaidetza zabalenaekin landuko dira.

5.- Organo eskudunak, kudeaketa plan berria onartzerakoan, aurreko kudeaketa planaren betetze maila ebaluatuko du.

25. artikulua.– Plangintzaldiaren ebaluazio orokorra.

1.- Hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak Euskal Sektore Publikoko erakundeetako euskararen erabileraren egoeraren ebaluazioa egingo du plangintzaldi bakoitza amaitutakoan, eta ebaluazio txostena igorriko die Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluari, Legebiltzarrari eta Dekretu honen Lehen Xedapen Gehigarrian sortzen den Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordeari (HAKOBA); ondoren, herritarren eta gainerako erakundeen eskura jarriko du.

2.- Dekretu honen eraginez igortzen diren ebaluazio txosten guztietan sexuaren aldagaiaren arabera banakatutako datuak emango dira.

III. ATALBURUA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN SISTEMA

LEHENENGO ATALA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

26. artikulua.- Hizkuntza eskakizunak.

1.- Hizkuntza eskakizuna da lanpostu bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun maila. Dekretu honen menpeko erakundeetako lanpostu bakoitzak bere hizkuntza eskakizuna finkatuta izango du.

2.- Hizkuntza-eskakizuna bi mailen konbinazioak osatzen dute, ahozko adierazpen mailak eta idatzizko adierazpen mailak. Era berean, maila bakoitza bi gaitasunez osatuta dago, bata aktiboa eta bestea pasiboa.

Ahozko adierazpenaren maila mintzamenak (aktiboa) eta entzumenak (pasiboa) osatzen dute.

Idatzizko adierazpenaren maila idazmenak (aktiboa) eta irakurmenak (pasiboa) osatzen dute.

3.- Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak esleitzeko, lanpostu horien funtzioak aztertzeaz gain, kontuan hartuko dira langileek herritarrekin, erakundearen barruan eta beste erakunde batzuekin dauzkaten ahozko eta idatzizko harreman komunikatiboak; horretarako, behar den komunikazio- eta zereginen-azterketa egingo du erakunde bakoitzak.

27. artikulua.- Euskaraz jarduteko gaitasuna.

1.- Euskal Sektore Publikoko erakundeek zerbitzura jarduten duten langileei lanpostuaren berezko funtzioak euskaraz betetzeko beharrezkoa den gaitasuna aitortzen zaie, baldin eta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu badute.

2.- Edonola ere, euskara jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuetan jarduten duen langile orok euskara laneko hizkuntza eta zerbitzuko hizkuntza gisa erabiliko du, betiere bere erakundeak ezarritako erabilera-irizpideen arabera.

3.- Euskal Sektore Publikoa osatzen duten entitateek zerbitzura jarduten duten langileek lanpostuari dagokion C1 edo C2 mailak dituen nahitaezko hizkuntza eskakizuna egiaztatu baldin badute, euskaraz lan egingo dute, ahoz zein idatziz, entitate bakoitzak onartu duen planean horri buruz ezarrita dagoenarekin bat etorruta.

4.- C1 edo C2 mailak dituen hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten langileek euskaraz egingo dituzte entitatearen prestakuntza-planeko ikastaroak, hizkuntza-plangintzarekin bat. Era berean, prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen zaie Euskal Sektore

Publikoa osatzen duten entitateen zerbitzura jarduten duten langile guztiei. Langileak prestatzeko erantzukizuna duen atalak hartuko ditu horretarako neurriak.

28. artikulua.– Lanpostu zerrendak.

1.- Hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, Atalburu honen Laugarren Atalean arautzen den derrigortasun-data erakunde bakoitzeko lanpostu zerrendetan nahitaez eman beharreko zehaztapenetan agertuko dira. Egiturazkoak ez direlako, lanpostu zerrendatik kanpoko lanpostuak badaude, hauek ere berariazko zerrenda batean jasoko dira eta hemen araututakoa berdin aplikatuko zaie.

Derrigortasun-data igarota duten lanpostuen kasuan, lanpostu zerrendan data igarota dagoela besterik ez da jasoko.

2.- Erakunde batean lanpostu berari dagozkion bi dotazio edo gehiago daudenean, lanpostu zerrendetan bereizita eta banan-banan agertuko dira, bakoitzari esleitutako hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data zehaztuta.

3.- Beharrezko koordinazioa bermatzeko, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak lanpostu zerrendetako datuak jasotzeko tresna telematikoak garatu, eta Sektore Publikoaren erakundeen eskura jarriko ditu. Erakundeek, tresna horiek erabiltzerakoan, beren jarraibideak beteko dituzte eta euskararen normalizaziorako esanguratsuak diren datuak eguneratuta mantenduko dituzte.

4.- Dekretu honetan lanpostu zerrendei buruz esaten dena aplikatuko zaie, halaber, erakundeek erabil dezaketen horien pareko bestelako tresnei.

29. artikulua.– Hizkuntza eskakizunetako euskara mailak.

1.- Lanpostu zerrendetan edo, kasuan kasu, berariazko zerrendetan, modu berezitan jasoko dira lanpostuei esleitutako ahozko adierazpen mailak eta idatzizko adierazpen mailak.

2.- Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, lanpostuetako hizkuntza eskakizunei esleitutako euskara mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera definitu eta izendatuko dira.

3.- Lanpostuaren funtzioek ahozko zein idatzizko adierazpen maila bera eskatzen dutenean, hizkuntza eskakizunaren mailak modu simetrikoan adieraziko dira, honako eskemari jarraikiz:

MINTZAMEN MAILA

B1

IDAZMEN MAILA

B1

B2	B2
C1	C1
C2	C2

4.- Aurrerantzean, honela izendatuko dira lanpostu zerrendetan Dekretua indarrean jarri aurretik ezarritako hizkuntza eskakizunak:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagirien mailen arabera izendatuta daudenak:

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	AHOZKO ADIERAZPEN MAILA	IDATZIZKO ADIERAZPEN MAILA
1	B1	B1
2	B2	B2
3	C1	C1
4	C2	C2

b) Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza eskakizuna esleituta dutenak: ahozko adierazpen maila C1 eta idatzizko adierazpen maila B2.

c) Gainerako kasuetan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagirien zein mailekin dauden baliokidetuta aintzat hartuta, aurreko irizpideetara egokituko dira.

30. artikulua.– Tarteko hizkuntza eskakizunak

1.- Funtzioen eta komunikazio harremanen azterketa egiterakoan lanpostuaren zereginek ahozko eta idatzizko adierazpen maila ezberdinak eskatzen dituztela ondorioztatzen bada, tarteko hizkuntza eskakizuna esleitu daiteke, maila ezberdinak konbinatuz.

Tarteko hizkuntza eskakizun horiek ahozko adierazpen maila eta idatzizko adierazpen maila ezberdinen konbinazioak dira. Ezin izango dira, inola ere, maila bakoitza osatzen duten gaitasunak konbinatu.

2.- Idazmen mailari dagokionez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko A1 eta A2 mailak ere esleitu ahalko dira, lanpostuaren ezaugarriak aztertuta ondorioztatzen bada bere idatzizko funtzioak noizbehinkakoak direla eta idatzizko adierazpen maila horietakoren bat nahikoa izan daitekeela funtzio horiek betetzeko.

31. artikulua.– Herritarrekiko harremanak.

1.- Dekretuaren 28.3 artikuluan aipatzen diren tresna telematikoetan adierazi beharko da lanpostuak herritarrekiko harremanik duen, harreman horiek ahozkoak, idatzizkoak edo mota bietakoak diren eta ohikoak diren.

2.- Beren funtzio nagusietan herritarrekin ahozko harreman ohikoak dituzten lanpostu guztietan mintzameneko B2 maila izango da ahozko adierazpenean esleitu beharreko gutxienekoa, nahitaez bete beharreko indize soziolinguistikoen arabera beharrezkoa denean.

32. artikulua.– Hizkuntza eskakizun berrien esleipena eta berrikuspenak.

1.- Dekretu hau indarrean jartzearekin batera edo ondoren hizkuntza eskakizunen sistemara lehen aldiz batzen diren erakundeen kasuan, honela esleitu dira lanpostuen hizkuntza eskakizunak:

a) Lanpostu bakoitzean sartzeko eskatzen den ikasketa maila kontuan harturik, ikasketa horiek euskaraz egiteagatik EAEko legediak aitortzen duen salbuespen mailari lotutako hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio lanpostuari, oro har.

b) Lanpostuan sartzeko ikasketarik eskatzen ez bada edo eskatzen diren ikasketak euskaraz egiteagatik EAEko legediak salbuespen mailarik aitortzen ez badu, lanpostuaren azterketa komunikatiboa egin beharko da hizkuntza eskakizuna esleitzeko.

c) Halaber, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraikiz, beren funtzio nagusietan herritarrekin ahozko harreman ohikoak dituzten lanpostuetan, mintzameneko B2 maila izango da ahozko adierazpenean esleitu beharreko gutxienekoa, nahitaez bete beharreko indize soziolinguistikoen arabera beharrezkoa denean; baita lanpostuan sartzeko eskatzen den ikasketa maila euskaraz egiteagatik aitortutako salbuespena txikiagoa denean ere.

d) Erakundeak lanpostuetako hizkuntza eskakizunak esleitu baditu aurreko a) eta b) azpiataletan ezarritakoari jarraikiz, ezarritako derrigortasun-datei buruzkoa izango da Dekretuaren 43. artikuluaen arabera eskatu beharreko txostena, herritarrekiko ahozko harremanik ez duten lanpostuei dagokienez.

e) Lanpostuaren azterketa komunikatiboa egiterakoan ikusiko balitz hasieran esleitutako hizkuntza eskakizuna ez dela egokia lanpostuaren funtzioak behar bezala betetzeko, hizkuntza eskakizuna aldatzeko izapideari ekin ahal izango litzaioke.

2.- Artikulu honetan araututakoa aplikatu ahalko da, halaber, bai hizkuntza eskakizunen sistematan txertatuta dauden erakundeek sortzen dituzten lanpostu berrietan, bai aurretik

esleitutako hizkuntza eskakizunetako mailaren bat, edo biak, berrikusi nahi direnean, sortuta dituzten lanpostuetan.

33. artikulua.– Teknikari Gaituak.

Lanpostuan bete beharreko zeregin eta eginkizunen muina euskara bera denean, lanpostu horiei mintzamenean zein idazmenean C2 mailako hizkuntza eskakizuna ezarriko zaie, eta sortzen diren unetik bertatik izango da derrigorrezkoa. Lanpostu zerrendan derrigortasun-data jasotzeko lekuan TG hizkiak jarriko dira. Lanpostu horiek ez dira kontuan hartuko derrigortasun-indizearen betetze maila kalkulatzeko.

34. artikulua.– Hizkuntza eskakizunen egoera bereziak.

1.– Erakunde batek bere lanpostuetako batzuetan ezarritako hizkuntza eskakizuna bat ez badator lanpostu horien funtzio komunikatiboak egoki betetzeko behar diren euskara mailekin, erakunde horrek beharrezko urratsak emango ditu lanpostu horiei esleitutako hizkuntza eskakizuna zuzentzeko.

2.- Lanpostuen zein horiek betetzen ari diren langileen kopurua edo ezaugarriak aintzat hartuta, hizkuntza eskakizunaren aldaketa lanpostu guztietan aldi berean ezin dela egin ondorioztatzen bada, erakundeak berariazko planifikazioa abiatuko du egoera bideratzeko; hori guztiori hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin batera egingo du.

3.- Egoera zuzentzen joango da, planifikazio horren arabera aldaketak lanpostu zerrendan gauzatu ahala; bitartean, lanpostu bakoitzarekin jokatu da unean-unean esleituta duen hizkuntza eskakizunaren arabera. Hala ere, erakundeak aukera edukiko du, bere planifikazioan ezarritakoaren arabera, etorkizunean esleituko zaion hizkuntza eskakizun egokiaren ezaugarriak kontuan hartzeko; hautaketa prozesuetako merituen balorazioan, adibidez. Edonola ere, lanpostu zerrenda horretarako aldatzen ez den bitartean hizkuntza eskakizun hau ezingo da baldintza bezala eskatu.

4.- Artikulu honetan araututako egoerak Dekretuaren 28.3 artikuluan aipatzen diren tresna telematikoetan islatuko dira.

BIGARREN ATALA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNETAKO EUSKARA MAILAK EGIAZTATZEKO AZTERKETAK

35. artikulua.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzekeo titulu eta ziurtagiriak.

1.- Dekretu honetan araututako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko bideak honako hauek izango dira:

- a) Hautaketa prozesuetan eta ohiko zein ezohiko deialdietan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak kudeatzen dituen proben bidez, Euskal administrazio publikoetako langileentzat.
- b) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen-HABEren deialdietan, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten gainerako erakundeetako langileentzat.
- c) EAEko araudiaren arabera baliokidetutako euskara titulu eta ziurtagirien bidez.

2.- Ahozko adierazpen maila zein idatzizko adierazpen maila bereizi gabe aitortzen dituzten titulu eta ziurtagirien kasuan ulertuko da horien titularrek bi mailak egiaztatuak dituztela.

36. artikulua.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen deialdiak.

1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erakunde gaitu bakarra da euskal administrazio publiko guztietako langileen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko eta horretarako deialdiak egin eta kudeatzeko.

2.- Era berean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak behar diren probak egingo ditu hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko, euskal administrazio publikoek eta haien erakunde eta organismoek langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko deitzen dituzten prozesuetan.

3.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskal administrazio publikoetan sartzeko hautaketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileetan izan behar duen ordezkari gainera, deialdietan eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probetan ere hartuko du parte erakunde horretako beste ordezkari batek. Era berean, xedea bera izanik, ordezkari hori beharrezkoa izango da lanpostuak betetzeko lehiakideetako batzorde kalifikatzaileak osatzerakoan, baita aldiro-aldiro zein berariaz egindako gainerako deialdietan ere. Epai-mahaikide guztiek nahikoa gaitasuna izan behar dute EAEko hizkuntza ofizial bietan, eta epaimahaia osatzerakoan gizonen eta emakumeen kopuruen arteko oreka bilatuko da.

4.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak finkatuko ditu hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proben edukia, forma eta ebaluatzeko irizpideak.

5.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak azterketa eredu egokituak ezarriko ditu komunikazio gaitasunetan behar bereziak dituzten herritarren kasuetarako.

6.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proba-eredu egokituak ezarri eta aplikatuko ditu ezgaitasun intelektuala duten azterketarien hizkuntza eskakizunak neurtzeko.

7.- Euskal administrazio publiko guztietako langileek beren hizkuntza eskakizunak egiaztatu ahal ditzaten, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, aldian-aldian, deialdiak egingo ditu. Deialdiak, gutxienez, sei hilabeterik behin egingo dira.

Proba bereziak ere egin ahal izango dira, ezohiko egoeretan hizkuntza eskakizuna egiaztatzekeo premia handia dagoenean eta deialdi arruntetan edo aldirokoetan proba horiek ezin egin daitezkeenean.

8.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak kudeatzen dituen hizkuntza eskakizunen proba deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

HIRUGARREN ATALA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZETIK SALBUESTEKO BIDEAK, EUSKARA GAITASUNEAN OINARRITUTAKOAK

37. artikulua.– *Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeetik salbuesteko bideak, euskara gaitasunean oinarritutakoak.*

1.- Dekretu honek araututako esparruetan, hizkuntza eskakizunak azterketen bitartez egiaztatzeetik salbuetsita egongo dira beren euskara gaitasuna bi bide hauetako batetik erakutsi dutenak:

- a) Ikasketak euskaraz egin izana, EAEko araudiak honetarako ezartzen dituen kasu eta baldintzekin.
- b) Hautaketa prozesuko proba guztiak euskaraz egin, eta hautaketa prozesu hori gainditu dutenak.

38. artikulua.– *Hautaketa prozesua euskaraz egiteagatiko salbuespena.*

1.- Dekretuaren eraginpeko erakundeek deitzen dituzten enplegu publiko eskaintzetan aukera eman beharko dute, eta beharrezko bitartekoak jarri, hautaketa prozesuan hautagaiak salbuespen bide hau erabili ahal dezaten. Horretarako, beharrezkoa da proba horiek zuzenduko dituzten epaimahaikideetako batzuek lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta izatea.

2.-Horretarako egiten diren probek lanposturako beharrezkoa den idatzizko eta ahozko gaitasuna neurtzeko eta ebaluatzeko aukera eman beharko dute. Aukera anitzeko probak ez dira baliozkoak izango.

Horien diseinuan, haien edukia lanpostuaren hizkuntza-eskakizunarekin bat datorrela eta

egokia dela bermatuko da. Zuzentzeko orduan, besteak beste, komunikazio-gaitasuna eta hizkuntza-zuzentasuna hartuko dira kontuan.

3.- Enplegu publikoko eskaintza deitzen duen erakunde interesdunak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko eskumena duen erakundeari eskatu ahal izango dio proben hizkuntza-aholkularitza eta baliozkotzea.

4.- Aurreko 37.1.b) artikuluan jasotako salbuespenaren eragina mugatua izango da. Horrela egin den hautaketa prozesuan lortutako lanpostura sartzeko balioko du, baina ez du berarekin ekarriko euskararen ezagutzari buruzko ezein titulu edo ziurtagiri lortzea, ez lanpostu horretatik haratago eraginik eduki dezakeen salbuespen aitortzarik, artikulua honetan ezarritakoak izan ezik.

5.- Artikulu honetan araututako salbuespena baliatuz bere lanpostua eskuratu duenak lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edukiko balu bezala hartu ahalko du parte erakundearen azterketarik gabeko barne horniketetan; bai hizkuntza eskakizuna baldintza denean zein merituen balorazioan.

6.- Lan-poltsak eratzeko deialdietan azterketarik egitea aurreikusi bada, aurreko lerroaldeetan ezarritakoa bete beharko da; aldiz, azterketarik gabeko deialdietan, lehiaketa hutsezkoak kasu, ezingo da salbuespen bide hau erabili.

7.- Salbuespen bide honetatik lanpostua eskuratu duten langileen egoera hau Dekretuaren 28.3 artikuluan aipatzen diren tresna telematikoetan islatu beharko da eta derrigortasun-indizearen betetze maila neurtzeko aintzat hartuko da.

LAUGARREN ATALA

DERRIGORTASUN-DATA

39. artikulua. – Derrigortasun-data.

1.- Derrigortasun-datak zehazten du lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunak noiztik behar duen egiaztatuta izan. Derrigortasun-data igarotzen denetik aurrera hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea nahitaezko baldintza izango da dagokion lanpostuan sartzeko eta lanpostu hori bete ahal izateko, Dekretu honetan araututako salbuespen kasu eta denbora tartetean izan ezik.

2.- Hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostu horretan diharduenak hizkuntza ofizial batean zein bestean jardun beharko du, erakundearen hizkuntza planifikazioan ezarritakoari jarraikiz. Derrigortasun-data igarota dituzten lanpostuen jardueran euskara laneko ohiko hizkuntza izango da, erakundearen hizkuntza irizpideetan ezarritakoari jarraikiz.

3.- Plangintzaldi bakoitzean derrigortasun-data berriak ezarriko dira, euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa onartzearekin batera. Edonola ere, data horiek plangintzaldian zehar ere ezarri ahalko dira; besteak beste, kudeaketa planekin loturik zein plaza berriak sortzean.

4.- Lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna tartekoa denean, lanpostuak derrigortasun-data bakarra izango du; izan ere, derrigortasun-data lanpostuaren hizkuntza eskakizunari lotzen zaio, ez hori osatzen duen mailei.

40. artikulua.– Derrigortasun-indizea.

1.- Erakunde bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigortasun-indizeak ezarriko du lanpostu kopuru osoaren zein ehunekok, ezinbestean, izan behar duen hizkuntza eskakizuna derrigorrezko.

2.- Derrigortasun-indizea, ondorengo era honetara finkatuko da:

$$\text{Euskaldunak} + (\text{Ia Euskaldunak}/2).$$

3.- Derrigortasun-indize hori finkatzeko, plana edo planaren berrikuspina onartzerakoan indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, betiere, erakunde bakoitzari dagokion jarduera-eremuari buruzkoak.

4.- Erakundearen jarduerak hartzen duen lurralde eremu osoa erabiliko da berari dagokion indizea kalkulatzeko; hala ere, Dekretu honen eraginpeko erakundeetako atal deskontzentratuek zein lurralde eskumen zehatzak dituzten atalek euren jardun lurralde eremuari dagokion indizea bete beharko dute.

5.- Derrigortasun-indizea txikia denean ere, erakundeak bermatu beharko du herritarrekin harremana duten zerbitzuetan badagoela bere zerbitzura diharduen langile bat, gutxienez, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duena eta euskaraz artatzeko gai dena, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko.

41. artikulua.– Derrigortasun-daten ezarpena.

1.- Derrigortasun-datak honako lanpostu hauetan ezarriko dira lehentasunez:

- a) Herritarrekin harreman zuzenak dituztenetan, zerbitzu-hizkuntza bermatzeko.
- b) Zeharkakotasuna duten lanpostuetan, lan-hizkuntza bermatzeko; bereziki, zerbitzu juridikoak, informatikoak, giza baliabideetakoak, ekonomia, berdintasun, ingurumen eta kalitate arloetakoak.
- c) Kanpoko beste erakundeekin ohiko komunikazioak dituztenetan.

d) Hutsik dauden lanpostuetan.

Lanpostuak zehazteko orduan lau irizpide horien arteko oreka bilatu behar da, erabilera planean zehaztutako helburuekin bat, lan-hizkuntza indartuz eta zerbitzu-hizkuntza bermatzea lehentasuna izanik.

2.- Dekretu hau indarrean jartzearekin batera edo ondoren hizkuntza eskakizunen sistemara lehen aldiz batzen diren erakundeen kasuan, zuzenbide pribatuko enpresak badira, derrigortasun-datak herritarrekiko ahozko harremanak dituzten lanpostuetan ezarriko dira lehentasunez; horiek ezarri ondoren, erakundeak aukeran izango du gainerako derrigortasun-datak bestelako lanpostuetan ezartzen jarraitzea, indizea betetzeko.

3.- Lanpostuak dotazio bat baino gehiago badu eta zereginak edo jarduera-esparruak bereizi ezin badira, aurreko irizpideak aplikatu ondoren, dagokion derrigortasun-data ezartzerakoan lehentasuna izango dute beste honako irizpide hauek:

a) Dotazio bat baino gehiagoko lanpostu batean dotazio jakin bat betetzen duen titularrak berak eskatzen badu derrigortasuna bere dotazioan ezartzeko, horrexek izango du lehentasuna gainerako irizpide guztien gainetik.

b) Lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesu baten ondorioz lehen plangintzaldia baino lehenago bete diren dotazioetan ere lehentasunez ezarriko da derrigortasuna, prozesu horretan euskaraz jakitea derrigorrezko betebeharra izan bada.

c) Lanpostu batek dotazio bat baino gehiago duenean, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunarekiko euskara-maila handiagoa duten titularren dotazioetan ezarriko da derrigortasuna.

d) Titularren euskara-mailari begiratuta batetik bestera alde handirik ez badago, orduan, adinaren arabera titular gazteena duen dotazioari ezarriko zaio derrigortasuna.

e) Orain arte azaldutako irizpide horiek denak erabilia nahikoa ez bada, lanpostu horretan denborarik gutxien daramaten titularren dotazioetan ezarriko da derrigortasuna.

4.- Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak ezartzeko irizpideek erakunde bakoitzean dauden lanpostuetan modu zuzen eta proportzionalean ezartzea izango dute helburu, bereizitasunik egin gabe kidego, eskala, maila edo titulazio-taldearen arabera.

42. artikulua.– Geroratutako derrigortasun-datak.

1.- Lanpostu bati derrigortasun-data ezartzerakoan, bertan jarduten duen langilerik badago eta lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez badu, derrigortasun-data geroratua ezarri ahalko zaio eta zenbat denbora beharko lukeen maila hori lortzeko

aintzat hartuko da. Gainerako kasuetan, erabakia hartzen den eguneko data jarriko da eta lanpostu zerrendan data igarota dagoela besterik ez da jasoko.

2.- Derrigortasun-dataren geroratzea langilearen egoerari lotzen zaio, ez lanpostuaren ezaugarriei. Beraz, erakundeak derrigortasun-data ezartzeko erabakia hartzerakoan besterik erabaki ezean, lanpostu zerrendan data igarota dagoela jasoko da.

Edonola ere, 28.3 artikuluan aipatzen den tresna telematikoan jasoko da zein data arteko epea eman zaion langileari lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna lortzeko eta horren berri emango da 43. artikuluan araututako txostena eskatzerakoan.

3.- Zerbitzu-eginkizunetan dagoen langileak, jabetzan duen lanpostuari dagokionaz gain, betetzen ari den lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ere egiaztatu beharko du, lanpostu horretan derrigortasun-data igarotzen den unetik aurrera.

4.- Lanpostuaren derrigortasun-data igaro bazen titularra zerbitzu aktiboan ez zegoenean, lan-harremanak eten gabe bere lanpostua gordetzeko eskubidea eman dion edozein egoera administratibotan egonik, lanpostuaren hizkuntza eskakizunak C1 edo C2 mailaren bat badu, hiru urteko salbuespena emango zaio maila egiaztatu ahal dezan; gainerako kasuetan, hamazortzi hilabeteko salbuespena emango zaio. Salbuespena zenbatzen hasiko da berriro bere lanpostura itzultzen denetik edo lan-harremanak hasten direnetik eta behin bakarrik lortu ahal izango da.

BOSGARREN ATALA

HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN ETA DERRIGORTASUN-DATEN TXOSTENAK

43. artikulua.– Hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun-daten txostenak.

1.- Erakundeek, sortzekoak diren zein sortuta dauden lanpostuetako derrigortasun-datak zein hizkuntza eskakizunak esleitzeko edo aldatzeko erabakia hartu aurretik, txostena eskatuko diote hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari, Dekretu honetan berariaz txosten hori eskatzetik salbuetsitako kasuetan izan ezik.

Nahitaez eskatu beharreko txosten horretan, proposatutako hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten egokitasuna eta erakundeari dagokion derrigortasun-indizea jasoko dira; nolana ere, txostena ez da loteslea izango.

2.- Lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna ez badator bat lanpostu berari buruz Jaurlaritzako organoak bere garaian igorritako txostenean proposatutakoarekin eta aldaketa egin nahi bada proposamen horretara egokitzeko, ez da premiazkoa izango txosten berria eskatzea.

3.- Ez da premiazkoa izango txostena eskatzea aldaketa egin nahi bada bere funtzio nagusietan herritarrekin ahozko harreman ohikoak dituen lanpostuari mintzameneko B2 maila ezartzeko, aurretik hori baino beheragokoa bazuen.

4.- Lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizunen gainerako aldaketa kasuetan ere ez da premiazkoa izango txostena eskatzea aldaketa egin nahi bada Dekretuaren 32.1 artikulua a) eta b) azpiataletan ezarritako irizpideei jarraikiz, lanpostuek herritarrekiko ahozko harremanik ez badute.

Lanpostu berrien kasuan, aurreko baldintzak betetzen badira, lanpostu zerrendan ezarritako derrigortasun-datak aztertuko dira txostenean; ez, ordea, esleitutako hizkuntza eskakizunak.

44. artikulua.– Lanpostuei buruzko txostenen eskaera.

1.– Txostena eskatzerakoan, Sektore Publikoko erakunde bakoitzak dagokion proposamena bidaliko dio hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari, honek horretarako eskainitako tresna telematikoen bitartez. Txostena eskatu ahal izateko, erakundeak datu guztiak eguneratuta eduki beharko ditu 28.3 artikuluan aipatzen den lanpostu zerrenden kudeaketarako tresna telematikoan.

2.- Tresna telematikoan txertatutako datuez gain, txosten eskaerarekin batera txostenaren xede diren lanpostuei buruzko beste hauek ere helaraziko dira:

- a) Lanpostuen ezaugarriak eta erakundearen barruan duten kokapena.
- b) Lanpostuaren zereginetan aldaketarik badago edo erakunde-egituran aldaketak sortzen badira, hori azaltzeko txostena.

3.– Txostena plangintzaldiko lehen urtean eskatzen denean, proposamena eta beharrezko datuak jasota, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo du bere txostena; gainerako kasuetan, oro har, hilabete edukiko du bere txostena igortzeko.

Egiturazko lanpostuen zerrendetatik kanpo dauden lanpostuen kasuan, lanpostuaren horniketa premiazkoa bada, eskaeran horren berri emango da eta txostena hiru egun baliodunen epean emango da.

Txostena emateko kasuan kasu dagokion epea igarota erakundeak oraindik txostena jaso izan ez balu, izapidearekin jarraitu ahalko luke.

4.– Hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak egindako txosten hori jaso ondoren, erakundearen organo eskudunak hizkuntza eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezartzeko erabakia hartuko du eta, horren arabera, lanpostu zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.

5.- Halaber, lanpostuei hizkuntza eskakizunak zein derrigortasun-datak ezartzerakoan, lanpostu zerrendetan egon daitezkeen aldaketak egin aurretik, erakundeek kontsulta egin beharko diete legedian aurreikusitako sindikatu eta langileen gainerako ordezkariari.

SEIGARREN ATALA

LANPOSTUEN HORNIKETA

45. artikulua.– Euskararen balorazioa.

1.- Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzea derrigorrezkoa denean, hizkuntza eskakizun horren edo beheragoko mailen egiaztatzea ez da meritu bezala puntuatuko.

2.- Derrigortasun-datarik gabeko hizkuntza eskakizunen kasuetan, euskararen ezagutza ezinbestean baloratuko da meritu modura, irizpide hauen arabera:

a) Hautaketa prozesuan lortu daitekeen puntuazio osoa aintzat hartuta, lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunari emango zaizkion ehunekoak ondorengo hauexek izango dira, ez txikiagoak, ez handiagoak:

B1 eta B2 mailei dagokienez %5etik %10era.

C1 eta C2 mailei dagokienez %11tik %20ra.

b) Maila asimetrikoak esleituta dituzten hizkuntza eskakizunen kasuan, esleitutako maila gorenari dagokion ehunekoa aplikatuko da.

c) Erakundeek zehaztuko dute, deialdi bakoitzean, ahozko zein idatzizko adierazpen mailari eman beharreko puntuazioa mailaz-maila; lanpostuari ezarritakoak baino beheragokoei haiei emandako puntuazioak baino beheragokoak esleituko zaizkie; horien artean, A1 eta A2 mailak ere baloratu ahalko dira.

d) Lanpostuari ezarritakoak baino beheragoko mailak baloratzekoan A1 eta A2 mailetak baloratzen direnean, horiei emandako balorazioen batura %1 eta %4 artekoa izango da.

46. artikulua.– Hautaketa probak.

1.- Hautaketa prozesuaren baitan hautagaiei bermatuko zaie hautatzen duten hizkuntza ofizialaren erabilera Administrazioarekiko harremanen esparruan: izen-ematea, dokumentazioa aurkeztea, alegazio zein helegiteak jartzea, besteak beste.

2.- Halaber, lanpostuaren derrigorrezko baldintzen artean hizkuntza ezagutzak ez daudenean, hautagaiei emango zaie aukera, administrazioekiko harremanen esparrutik haratago, hautaketa prozesuko azterketa edo proba guztiak euskaraz edo gaztelaniaz egitea hautatzeko, eta horrela izango dela bermatu beharko zaie.

3.- Hautaketa prozesuko ahozko eta idatzizko ariketa guztiak euskaraz egitea aukeratu eta gainditzen dituzten hautagaiei lanpostuak ezarrita duen hizkuntza eskakizuna egiaztatua edukitzeagatik lortu daitekeen meritu balorazioa aitortuko zaie.

4.- Euskara edo beste hizkuntza bat jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuetarako hautaketa probetan, erakunde antolatzaileak erabaki ahalko du hautaketa prozesuan aurreikusitako probak hizkuntza horretan edo horietan egitea.

Horrela egitea erabakitzen denean, horren berri eman beharko da hautaketa-prozesurako deialdietan, zein probatan egingo den eta gai-zerrendako zein edukiri buruz zehaztuz.

Gainerako ariketetan artikulua honen 2. azpiatalean ezarritakoa beteko da.

5.- Edonola ere, 33. artikuluan arautzen diren lanpostuen kasuan, hautaketa prozesuko ariketa guztiak euskaraz egingo dira ezinbestean.

6.- Hautaketa prozesuaren baitan lanpostuaren dotazio bat baino gehiago badago, batzuek derrigortasun-data igarota eta besteek ez, erakundeak erabaki dezake aplikatzea, euskarari dagokionez, artikulua honen 4. azpiatalean araututakoa derrigortasun-data igarota duten lanpostuak lortzeko.

Era berean, gauza bera egin ahalko da lan-politsetarako deialdietan baldin eta derrigortasun-datarik gabeko zein igarotako derrigortasun-datadun dotazioak betetzeko direnean. Horrelakoetan, deialdiaren oinarrietan berariaz adieraziko da ezarritako hizkuntza jarraibideen arabera egin beharko direla probak derrigortasun-data igarota duten lanpostuak eskuratu ahal izateko.

7.- Euskarazko proben hizkuntza maila, betiere, bat etorriko da lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunarekin.

8.- Hautaketa prozesuak Enplegu Publikorako Eskaintza bitartez egiten direnean hautagaiak lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketa egiteko eskubidea izango du. Euskara azterketa hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen esku geratuko da kasu guztietan.

9.- Ahaleginak egingo dira hautaketa prozesuko azterketak bi hizkuntza ofizialetan aldi berean sortzeko, itzulpenetara jo gabe. Kalitatezko hizkuntza erabiliko da beti hauta-probetako edukiak emateko eta gai-zerrendako edukiak euskaraz ere eskaini beharko dira.

10.- Azterketak jatorrizko hizkuntzan zuzenduko dira beti; horretarako, hautaketa prozesuetarako eratzen diren epaimahai guztietan bermatu beharko da epaimahaikide batzuek lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutela eta horren berri emango da epaimahaiaren osaera argitaratzerakoan.

47. artikulua.– *Salbuespenezko horniketa.*

1.- Derrigortasun-data igarota duen lanpostua hornitzailearen, hautaketa prozesua gainditzeko dutenen artean lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen hautagairik ez badago, erakundeak albuetarako horniketa bide hau erabili ahal du.

Horrelakoetan, lanpostua bete gabe gelditzeak ekarriko lituzkeen kalteak ekiditeko, erakundeak erabaki ahal du hizkuntza eskakizunaren gaitasun bakoitzean lanpostuari dagokion euskara maila baino bat baxuagoa edo, gehienez jota, bi baxuagoa egiaztatzen duen hautagaia praktikaldian hartzea.

2.- Albuetarako horniketa hori baldintzatu izango da: langileari hamabi eta hemezortzi hilabete bitarteko praktikaldia ezarriko zaio hizkuntza eskakizuna egiaztatzen lanpostua eskuratu aurretik.

3.- Hautaketa prozesuaren helburua kontratazio finkoa ez denean ere, artikulua honetan ezarritako albuetarako bidea baliatu ahal izango da; horrelakoetan, langileak hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko du ezarritako praktikaldiaren amaiera heldu aurretik, baina ez da langile finko bihurtuko.

ZAZPIGARREN ATALA

**ADINEAN EDO EUSKARA IKASTEKO BESTE EZINTASUNETAN
OINARRITUTAKO ALBUETAK**

48. artikulua.– *Euskara mailak egiaztatzen albuetarako bideak, adina edo ikasteko beste ezintasunetan oinarritutakoak.*

1.- Ondorengo hauek ez dute hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudi orokorra bete beharrik izango, euren lanpostuei dagokienez:

a) Titular diren lanpostuari derrigortasun-data ezarri zaion plangintzaldiaren lehen egunean 45 urtetik gora dutenek, interesdunak eurak aurretiaz ados egonez gero.

b) Oinarrizko Batxilerra, Oinarrizko Heziketa Orokorra, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza zein etorkizunean hauek ordezkatzeko eman ahal diren ikasketa mailak gainditu ez dituztenek. Ez dira kontuan hartuko, eskolatze-egiaztagiria dela eta, legeak beste helburu batzuetarako ezarritako baliokidetzak edo baliozkotzeak.

c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanik, helduen hizkuntza trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak dituztenak.

d) Helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskara ikasteko ezinbestekoa den gutxieneko trebetasun-gaitasunik ez dutenak, ezintasun hori ageri-agerikoa eta egizatatu denean.

2.- Artikulu honetan finkatutako salbuespenei dagokien espedientea, langileak zein administraziotan diharduen, hantxe hasiko da, bai interesdunak berak hala eskatuta, bai ofizioz. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eskaera arrazoitua egin ahal izango dio administrazio bakoitzeko organo aginpidedunari helburu horrexekin.

49. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Hizkuntza eskakizunak betetzeko salbuespenak direla eta, Dekretu honen aurreko artikuluan finkatutako salbuespen-espedienteari hasiera emateko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, salbuespen motaren arabera:

a) Lanpostuari derrigortasun-data ezarri zaion plangintzaldiaren lehen egunean 45 urtetik gora izanez gero:

– Salbuespen-eskaera edo interesdunaren adostasuna.

– Jaiotze-egiaztagiria.

b) Oinarrizko Batxilerra, Oinarrizko Heziketa Orokorra, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zein etorkizunean hauek ordezkatzeko eman ahal diren ikasketa mailak gainditu ez badira:

– Salbuespen-eskera edo interesdunaren adostasuna.

– Interesdunak egindako zinpeko aitortpena. Bertan adieraziko da interesdunak ez duela ez Oinarrizko Batxilerra, ez Oinarrizko Heziketa Orokorra, ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ez etorkizunean hauek ordezkatzeko eman ahal diren ikasketa mailak lortu edo gainditu.

c) Minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak izanez gero eta, horren eraginez, helduen hizkuntza trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko eragozpenak edo ezintasunak izanez gero:

– Dagokion erakundearen arlo horretaz arduratzen den organoak egindako egiaztagiria, bertan minusbaliotasuna zein den jakinarazita. Era berean, minusbaliotasunaren maila ere zehaztuko da eta, ahal izanez gero, minusbalia horrek hizkuntza ikasketan duen eragina ere bai.

– Espedientearen xede den langilea inoiz euskaltegiaren batean edo batean baino gehiagotan ibilitakoa bada, euskaltegi horrek/horiek gai horretaz egindako txostena.

d) Helduen hizkuntza trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez hizkuntzak ikasteko prozesuan ezinbestekoa den gutxieneko trebetasun-gaitasunik izan ez, eta ezintasun hori ageri-agerikoa eta egiaztatua denean:

- Langilearen hizkuntza gaitasun-prozesuaren garapena nolakoa izan den egiaztatzen duen dokumentua. Bertan, emandako ordu-kopurua eta prozesuaren emaitza jasoko dira.
- Espedientea interesdunak eskatuta tramitatzen denean, honek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du edozein hizkuntzari buruz lortutako ezagutzamaila adierazten duten titulu ofizialei dagokienez.

50. artikulua.– 48.1. artikuluko a) eta b) azpiatalen garapena.

1.- 48.1. artikuluko a) eta b) azpiataletan zehaztutakoak gertatuz gero, interesduna zein administraziotan diharduen, administrazio horretan erabakiko da zer salbuespen egin behar den, hala badagokio. Ondoren, administrazio berak langileen erregistroan jasoko du hori eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari igorriko dio horren kopia bat, hark hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

2.- Derrigortasun-data igarota duen lanpostuari hizkuntza eskakizuna aldatzen bazaio eta aldaketa egiten den plangintzaldiaren lehen egunean langileak 45 urtetik gora izanez gero, eragindako lanpostu horretako titularra den langilea salbuetsita egongo da bere lanpostuari esleitutako maila berriak egiaztatzetik; edonola ere, salbuespenak ez dio eragiten aldaketa horren aurretik lanpostuak esleituta zuen hizkuntza eskakizunari, hau egiaztatua izan beharko du.

51. artikulua.– 48.1 artikuluko c) azpiatalaren garapena.

1.- 48.1 artikuluko c) azpiatalaren kasuan, espedienteari hasiera emateko dokumentazioa Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundera bidaliko da, han batzorde batek espedientea azter dezan. Erakunde horretako zuzendariak izendatuko du batzorde hori eta teknikariz eta medikuz osatuta egongo da honako era honetara:

a) Foru-aldundietako bateko medikua. Mediku horren lanpostuak dituen zereginen artean, besteak beste, honako eginkizun honek egon behar du: minusbaliotasun fisiko edo/eta psikikoei buruzko espedienteetan txostenak edo erabaki-proposamenak egitea. Foru aldundietako batek proposatuko du mediku hori.

b) Heziketa berezian aditua den teknikaria, hezkuntza alorreko eskumena esleituta duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak proposatua.

c) Logopedian aditua den teknikaria, hezkuntza alorreko eskumena esleituta duen Eusko Jaurlaritzaren Sailak proposatua.

d) Didaktikan aditua den teknikaria, HABEren zuzendariak proposatua.

e) Batzordea aztertzen ari den salbuespena norentzat den eta langile hori zein administratziotakoa den aintzat hartuta, administrazio horretako ordezkari bat.

f) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak proposatutako funtzionaria. Horixe arituko da batzordeko idazkari-zereginetan.

g) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo berak izendatutako pertsona izango da batzorde horretako buru.

2.– Batzordeak txostena egingo du hiru hilabete igaro baino lehenago eta, bertan, minusbaliotasun horrek helduen hizkuntz trebakuntza eta gaitasuna lortzeko erabiltzen diren programen bidez euskaraz ikasteko ezintasunik edo eragozpenik ba ote dakarren zehaztuko du.

3.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak batzorde tekniko-medikoak osatutako txostena igorriko dio langile horri dagokion adminstrazioari, honek dagokion erabakia har dezan.

4.– Minusbaliotasun fisiko edo psikikoren bat izateagatik salbuespena aitortzeko erabakia, langileari dagokion administrazioko langileen erregistroan jaso beharko da eta, ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi beharko zaio, honek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

52. artikulua.– 48.1 artikuluko d) azpiatalaren garapena.

1.- Dekretu honen 48.1 d) artikuluan esandakoari dagokionez, hizkuntza eskakizuna ez betetzeko salbuespen-espedientea hasi ondoren, horri dagokion dokumentazio guztia Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundera bidaliko da.

2.- Aipatutako erakunde horrek egiaztatuko du ea interesdunak lehen plangintzaldia hasi zenetik euskaraz gaitasuna lortzeko prozesurik bete duen ondorengo baldintza hauek aintzat izanik:

– Gaikuntza-prozesu etengabea izatea eta ikasleak hirurehun eskolordu hartzea. Ordu horiek ikasleak egindako ikastaroaldi osoaren ehuneko laurogeia osatuko dute gutxienez.

– Gaikuntza-prozesu etena izatea eta ikasleak bostehun eskolordu hartzea. Ordu horiek, gutxienez, ikasleak egindako ikastaroaldi osoaren ehuneko laurogeia osatuko dute.

3.- Adierazitako hori horrela izan arren, dagokion administrazioak, ofizioz zein interesdunak horrela eskatuta, salbuespena aitortzeko espedientea has dezake, 48.1 d) artikuluan ezarritako arrazoiak aintzat hartuta. Ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak dagokion erakundeak egindako proposamena aztertuko du ikasketa-prozesutik gaitasun eza larria ondorioztatzen den kasuetan.

4.- Beharrezkoa izango da batzorde tekniko batek espediente horiek denak begiratzea. Batzorde hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak izendatuko du eta euskara-irakaskuntzan aditu diren lagunez osatuta egongo da honako era honetara:

a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi kide.

b) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeko bi kide, erakunde horretako zuzendariak izendatuak.

c) Espedientean azaltzen den langileari dagokion administrazioak proposatutako kide bat. Hizkuntza gaikuntzan teknikari izan beharko du kide horrek. Eskaera egiten denetik hasita hamabost eguneko epean kide hori proposatzen ez bada, dena delako administrazioak batzordekide hori bertako kide izateari uko egiten diola ulertuko da.

d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo berak izendatutako pertsona izango da batzorde horretako buru.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko kideetako bat izango da idazkaria eta erakunde horretako zuzendariak izendatuko du.

5.- Dagokion langileak egin duen gaitasun-prozesuaren emaitzak baloratu beharko ditu batzordeak, beti ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak antolatutako ikastaroetan izandako emaitza orokorrak kontuan hartuta. Era berean, aztertzen ari den gaitasun-prozesuan parte hartu du(t)en euskaltegi(ar)en ikasketa-txostena aintzat hartuko da, baita Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundean ikasle horretaz dagoen txostena ere.

6.- Horretaz gain, batzordeak ongi iritzitako nahi adina txosten eska ditzake beste hizkuntzei dagokienez interesdunak zein ezagutza-maila duen jakiteko edo hizkuntza gaitasunarekin zerikusirik izan dezakeen beste edozein argibideren berri izateko. Era berean, egoki iritzitako proba eta elkarriketa guztiak egiteko aukera izango du.

7.- Batzordeak hiru hilabeteko epea amaitu baino lehenago eman beharko du txostena. Gero, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak dagokion administrazioari igorriko dio hark erabaki beharrezkoa erabaki dezan.

8.- Hizkuntzak ikasteko ezinbestekoa den gutxieneko gaitasunik izan ez eta ezintasun hori ageri-agerikoa eta egiaztatua denean salbuespena aitortzeko erabakia, langileari dagokion administrazioako langileen erregistroan jaso beharko da eta, ondoren, Herri

Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi beharko zaio, honek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskriba dezan.

53. artikulua.– *Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko langileen salbuespenak.*

1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko langileei dagokienez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izango du hizkuntza eskakizunak betetzerakoan egon daitezkeen, adina edo ikasteko beste ezintasunetan oinarritutako, salbuespen-espeditteei buruz erabakia hartzeko eskumena.

2.- Prozedura hasi eta sei hilabete igarota berariaz erabakirik hartu ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

54. artikulua.– *Aitortutako salbuespenen eragina eta indarraldia.*

1.- Hizkuntza eskakizunak edo horietako mailak egiaztatu behar ez izateko Dekretuaren III. Atalburuko Zazpigarren Atal honen arabera onetsitako salbuespenek bakar-bakarrik izango dute eragina salbuespena aitortzeko unean bertan lanpostuaren titularra den langileak betetzen duen lanpostu horrexerri dagokionez.

2.- Inskribatutako salbuespenak indarrean egongo dira, baldin eta salbuespena onesteko arrazoietan inolako aldaketarik ez badago.

3.- Arrazoi horietan funtsezko aldaketaren bat gertatuz gero, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoak berriz aztertuko du kasu hori berariaz eta, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta titularraren euskarazko ezagutza-maila kontuan izanik, lehenago aitortutako salbuespen horrek noiz bukatu behar duen jakinaraziko du.

4.- Txosten hori interesdunari dagokion administrazioa bidaliko da, hark dagokion erabakia har dezan, langileen erregistroan inskriba dezan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari jakinarazi diezaion, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko erregistroan inskribatuta gera dadin.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– *Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA).*

1.- Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) eratzen da, hizkuntza normalizazio gaietan eskumenak dituzten herri aginteen arteko elkarlana areagotzeko asmoz. Batzorde hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren, urriaren 1eko, 40/2015

Legearen 15.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz arautzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan integratuko da, hizkuntza politikari buruzko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailean hain zuzen ere, bere egitura hierarkikoan integratu gabe.

2.- HAKOBaren betebeharrak dira, batetik, hizkuntza politikaren lehentasuneko helburuei ekiteko beharrezkoak diren baliabideak aztertzea; eta, bestetik, hizkuntza normalizazio gaietan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.

3.- HAKOBaren osoko bilkurak honako osaera hau izango du:

a) Presidentea: Eusko Jaurlaritzan hizkuntza politikaren eskumena esleituta duen saileko goi kargua, sailburuorde mailakoa.

b) Idazkaria: Batzordekideen artean presidenteak izendatutakoa, gutxienez, zuzendari mailakoa.

c) Batzordekideak:

1. Hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko kide bat, zuzendari mailakoa.

2. Hezkuntza alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko kide bat, zuzendari mailakoa.

3. Justizia alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Saileko kide bat, zuzendari mailakoa.

4. Segurtasun alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko kide bat, zuzendari mailakoa.

5. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat, zuzendari edo zuzendari-orde mailakoa.

6. HABEko zuzendaria.

7. Osakidetzako ordezkari bat, zuzendari mailakoa.

8. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundietako ordezkari bana, diputatu edo zuzendari mailakoa.

9. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetako udaletako ordezkari bana, zuzendari mailakoa.

10. Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkaria (EUDEL).

11. Udal Euskaldunen Mankomunitateko presidentea (UEMA).

4.- Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea, eta gizonen eta emakumeen kopuruen arteko oreka bilatuko da.

5.- Euskararen normalizazioa helburu, bilera deialdiak, gai-zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak euskaraz bideratuko dira.

6.- HAKOBA, gutxienez, urtean bitan bilduko da, idazkariak deituta.

7.- Presidenteak kasuan kasu egoki iritzitako beste erakunde eta persona batzuk gonbida ditzake HAKOBAko bileretara.

8.- HAKOBak lan-talde teknikoak antolatu ahal izango ditu abian jarri nahi dituen proiektuak aurrera eramateko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– *Legebiltzarra eta Arartekoa.*

Dekretu honetan xedatutakoa aplikagarri zaie Eusko Legebiltzarraren zerbitzura dagoen administrazioari eta pertsonalari zein Arartekoaren bulegoari eta bere pertsonalari, Legebiltzarreko Mahaia erabakitakoarekin eta beren antolaketa eta funtzionamendu arauekin bat.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– *Estatuko Administrazioa Autonomia Erkidegoan eta bere menpeko erakundeak.*

1.- Hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea ziurtatu dadin eta barne legedian zein Espainiar Estatuak sinatu eta berretsi dituen Nazioarteko Hitzarmenetan euskal hiztunei aitortzen zaizkien hizkuntza eskubideak bermatu daitezen, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Estatuko Administrazioa eta bere menpeko erakundeek beren langileen euskara gaitasuna arian-arian ziurtatzeko programak eta euskara normalizatzeko planak jarriko dituzte martxan.

2.- 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arauzkotzekoaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak, horretarako aginpidea duten erakundeekin ados jarrita, lan egingo du eta jarduerak bultzatu eta sustatuko ditu Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Administrazioan eta bere ardurapeko sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko bidean jartzeko neurriak har daitezen. Ildo horretatik, bai lanpostuei dagozkien betebeharrak ezartzerakoan, bai egokitzapen-planak osatzerakoan, Euskal Sektore Publikoko erakundeetarako Dekretu honetan ezarritako irizpide berdintsuak erabiltzea bultzatuko da, Administrazio Periferikoan alorretik alorrera egon daitezkeen berezitasunak eta ezaugarriak aintzat izanik beharrezko diren egokitzapenak eginda.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– *Nazioartekotasun ezaugarriak dituzten erakundeak.*

Erakunde baten jardueraren nazioartekotasun alderdiek horrela eskatzen dutelako bere langileen %25etik gora atzerritarrak badira, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoari horren berri emango dio eta, kasuan kasu honek emango dizkion irizpideen arabera, malgutasunez aplikatu ahalko ditu 40 eta 41 artikuluetan jasotako arauak.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– *Baliokidetzak Dekretuaren aldaketa.*

297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denaren 5. artikuluan edukia aldatzen da, honela utzirik:

5. artikulua.- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza-eskakizunak sortu eta arautzen dituen apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuan arautua, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren ahozko C-1eta idatzizko B-2 mailekin dago parekatuta eta horien pareko ziurtagiriekin dago baliokidetuta.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren maila bi horiekin parekatutako euskararen jakite-mailak egiaztatzeko titulu eta ziurtagiriak dituztenek ez dute Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA) lortu behar, betekizun hau duten lanpostuak betetzeko.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– *Lanpostu zerrendetako egokitzapenak.*

1.- Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera esleitzen diren hizkuntza eskakizun berriak eta horien mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera izendatuko dira, Dekretuaren 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.- Urtebeteko epea emango da Dekretu hau indarrean jartzerakoan esleituta dauden hizkuntza eskakizunak eta horien mailak, Dekretuaren 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera izendatzeko.

3.- Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera ezartzen diren derrigortasun-data berriak Dekretuaren 28. eta 42. artikuluetan ezarritakoari jarraituz izendatuko dira.

4.- Urtebeteko epea emango da Dekretu hau indarrean jartzerakoan igarota dauden derrigortasun-datak Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz izendatzeko.

5.- Dekretua indarrean jartzerakoan ezarrita baina igaro gabe dauden geroratutako derrigortasun daten kasuan erakundeak erabakiko du horien nomenklatura lanpostu zerrendan horrela mantendu edo 42.2 artikuluan ezartzen diren irizpideak aplikatu.

6.- Xedapen Iragakor honetan ezarritako nomenklatura egokitzapen hutsa egiten bada ez da lanpostu zerrendaren aldaketa bezala ulertuko; beraz, ez da aldaketa izapiderik egin beharko eta ez da hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoaren txostenik eskatu beharko.

7.- Dekretu hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, beren funtzio nagusietan herritarrekin ahozko harreman ohikoak dituzten lanpostuetako hizkuntza eskakizunak egokitu beharko dira Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakora; hots, mintzamenen aurretik B2 maila baino beheragokoa ezarrita izanez gero, B2 maila, edo goragokoa, ezarriko zaie, nahitaez bete beharreko indize soziolinguistikoen arabera beharrezkoa denean.

Dekretuaren 31. artikulua aplikazioaren eraginez modu horretan egokitzen diren hizkuntza eskakizunen kasuan, Dekretua indarrean jartzen den unean eragindako lanpostu horietako titularra den langilea salbuesita egongo da bere lanpostuari esleitutako ahozko maila berria egiaztatzen; edonola ere, derrigortasun-data heldzerakoan egiaztatua izan beharko du aldaketa horren aurretik lanpostuak esleituta zuten hizkuntza eskakizuna.

8.- Dekretu hau indarrean jarri aurretik esleitutako hizkuntza eskakizuna berrikusi eta trebetasunen batean esleitutako maila aldatu nahi bada, aldaketa prozedura izapidetuko da eta Dekretuaren 42. artikuluan araututako txostena eskatu beharko da, artikulua berak aurreikusitako salbuespen kasuetan izan ezik.

Berrikuspen hau egiten ez bada Xedapen Iragakor honen bigarren azpiatalean aipatzen den hasierako urtebeteko epean, une horretan esleituta dagoen hizkuntza eskakizuna mantenduko da, aldaketa gauzatu bitartean, bere nomenklatura Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakora egokituz.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– *Egokitzapen epeak.*

1.- Hizkuntza eskakizunen izendapenak egokitzeko Lehenengo Xedapen Iragakorrean adierazitakoa eragotzi gabe, Euskal Sektore Publikoko erakundeek Bigarren Xedapen Iragakor honetan ezarritako epeak baliatu ahalko dituzte gainerako egokitzapenak egiteko.

2.- Dekretu hau indarrean jartzerakoan Euskal Sektore Publikoaren parte diren erakundeek honako epe hauek baliatu ahalko dituzte beren egokitzapenak egiteko:

- a) Dekretu honek indargabetzen duen 86/1997 Dekretuaren ezarpen eremuko erakundeek urte beteko epea izango dute Dekretu honetan ezarritakora trantsizioa

egiteko. Beren egokitzapen prozesua amaitu artean 86/1997 Dekretuan araututakoa jarraitu ahalko dute aplikatzen.

b) Dekretu honen aurretik beren berezko araudiak dituzten Hezkuntza, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoa eta Ertzaintzaren kasuan, zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldiak baliatu ahalko dituzte trantsizioa egiteko une horretan indarrean dituzten araudietatik Dekretu honetan ezarritakora; betiere, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin elkarlanean.

c) Bere berezko araudiari jarraikiz Justizia administrazioaren zerbitzuko Administrazioak onartutako hizkuntza planifikazio tresnak mantendu ahalko ditu, zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldiak baliatuz, Dekretu honen II. Atalburuan ezarritakora trantsizioa egin bitartean; betiere, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin elkarlanean.

d) Bigarren Xedapen Iragankor honen aurreko azpiataletan jasota ez dauden erakundeek beren hizkuntza normalizazio prozesuari ekingo diote, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin elkarlanean eta zazpigarren edo zortzigarren plangintzaldian zehar erabat batuko dira Dekretuan ezarritakora.

3.- Egokitzapen epeak finkatzeko EAeko Administrazio Orokorraren planifikazioari eragiten dioten plangintzaldien datak hartuko dira erreferentzia bezala. Zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldietarako aurreikusitako datak 2023. urteko urtarrilaren 1etik 2027. urteko abenduaren 31ra eta 2028. urteko urtarrilaren 1etik 2032. urteko abenduaren 31ra dira, hurrenez-hurren.

Beraz, artikulua honen bigarren azpiatalean jasotako erakundeek tarte horietan zehar Dekretu honetan ezarritakora joan beharko dira batzen eta, edonola ere, 2033. urteko urtarrilaren 1erako Dekretuan ezartzen zaiena bete-betean aplikatu beharko dute, Dekretuaren 7.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz plangintzaldien datak aldatu ezean.

4.- Justizia administrazioaren zerbitzuko Administrazioaren kidegoei dagokienez, beren kudeaketa Eusko Jaurlaritzari eskualdatua dutenak, hizkuntza eskakizunen izendapenak egokitu eta bere hizkuntza planifikazio tresnak II Atalburuan ezarritakora batzeaz gain, Dekretuaren gainerako edukiak aplikatuko zaizkie unean-unean indarrean duten arau-esparru bereziarekin bat egiten duten neurrian, besterik ez.

Dekretua indarrean jarri aurretik eskuratutako eskumen zein eskuduntzen arabera aplikagarriak izan daitezkeen Dekretuaren edukietara egokitzeko, zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldien iraupen epea emango da, Bigarren Xedapen Iragankor honetan ezarritako baldintzetan.

Etorkizunean gertatutako eskumen edo eskuduntza transferentzia berrien eraginez Dekretuaren beste eduki batzuk arlo honetan aplikagarriak bihurtzen badira, berariazko

egokitzapen epeak ezarriko dira hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin elkarlanean.

5.- Dekretu hau indarrean jarri ondoren eskumen-transferentzia bitartez Euskal Sektore Publikoan integratzen diren erakundeek eskumen-transferentzia gauzatzen den unetik aurrera hasi beharko dute planifikatzen beren hizkuntza normalizazioa, hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren organoarekin elkarlanean. Dekretuan ezarritakoa, beren izaeraren arabera, gehienez jota, hamar urteko epean bete beharko dute.

6.- Egokitzapen epeak egoteak ez du esan nahi Dekretu hau epearen amaierara arte ez zaienik erakundeei aplikagarria izango, ez eta horren aurretik aplikatzen hasiz gero Dekretu osoa aldi berean aplikatu beharko dutenik. Erakunde bakoitzak bere ibilbidea egingo du, egokitzapen epean zehar, eta berak erabakiko du zein momentutik aurrera hasiko den ordezkatzan bere aurreko araudian jasotako arauak, modu mailakatuan edo denak aldi berean.

7.- Edonola ere, egokitzapen epeak amaitu ondoren ere 34. artikuluan ezarritako arau bereziak aplikatu ahalko dituzte.

8.- Erakunde bakoitzak, Dekretuaren aplikaziora heltzerakoan, irekita dituen prozeduratan, horiek abiatu zirenean indarrean zuen araudiari jarraitu ahalko dio beren amaierara heldu arte.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– *Teknikari Gaituaren hizkuntza eskakizuna.*

C2 maila aitortuko zaie Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egiaztatutako euskara mailen erregistroan indarrrik gabe gelditu zen Teknikari Gaituaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenei. Era berean, C2 maila aitortuko zaie lanpostu zerrendan euren Teknikari Gaituaren mailarekin duten karrerako funtzionarioei eta lan-kontratuko langile finkoei, baldin eta lanpostu horretan sartu baziren hizkuntza maila hori ezarri baino lehenago.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– *Azterketa ereduak egokitzea.*

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak azterketa eta ziurtagiri ereduak egokituko ditu, ahozko eta idatzizko adierazpen mailak modu berezitan egiaztatu eta erregistratu ahal izateko.

Halaber, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak-HABEk bideak irekiko ditu, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumeko mailen komunikagaitasunen azterketa eta egiaztatze berezituak egiteko.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– *Adinagatik zein gaitasun ezagatik aitortutako salbuespenak.*

1.- Dekretu hau indarrean jarri aurretik hasitako salbuespen prozedurei ez zaie aplikatuko Dekretu hau; beraz, horietan prozedura abiatu zenean indarrean zegoen araudiari jarraituko zaio.

2.- Dekretu hau indarrean jarri aurretik aitortutako hizkuntza eskakizunen salbuespenek, zein aurreko azpiatalean ezarritakoari jarraikiz aitortuak izan ahal direnek, indarrean jarraituko dute, aitortuak izan ziren araudiaren arabera, salbuespena bertan behera uztea ekarriko lukeen aldaketarik gertatzen ez den bitartean.

3.- Edonola ere, Dekretu honen aurretik indarrean egondako araudiei jarraituz aitortutako salbuespenei, Dekretuaren III. Atalburuaren Zazpigarren Atalean jasotako pareko arrazoietan oinarrituta eman badira, 54. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.– *Arauk indargabetzea.*

Aurreko xedapen iragankorretan adierazitakoa eragotzi gabe, Dekretu hau indarrean jartzen denean, bere kontrakoa dioten maila bereko edo baxuagoko gainerako xedapen guztiak, edo horien zatiak, indarrik gabe geratuko dira; bereziki, honako hauek indargabetuta geldituko dira:

- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 30/1998 Dekretua, otsailaren 24koa, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena.
- 67/2003 Dekretua, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan normalizatzekoa.
- 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa.
- 47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena.
- 42/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituen dekretua aldatzeko dena.
- 6/2000 Dekretua, urtarrilaren 18koa, irakaspostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezkotasun-datak ezartzeko irizpideak finkatzen dituen Dekretua bigarrenez aldatzeko dena.
- 182/2002 Dekretua, uztailaren 23koa, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun-datak ezartzeko dena.
- 66/2005 Dekretua, apirilaren 5ekoa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen dituena.

- 190/2011 Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Lanbide Heziketako irakasleentzat hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak ezartzeko irizpideak ezartzen dituena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.- *Garapena.*

Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, Osasuneko sailburuari, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari ahalmena ematen zaie, bakoitzak bere aginpide-esparruan, Dekretu hau garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak har ditzaten.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- *Indarrean jartzea.*

Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen,

**Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA**

**Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.**

**Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.**

**Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.**

**Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.**

**Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.**

**Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.**